

# GUaiXE.net



**Nazabal Etxarrin**  
**Nafarroako**  
**txapelaren bila**



Kirolak >> 11

**Nafarroako mendi**  
**taldeen eguna etzi**  
**Altsasun**



Kirolak >> 11

**Arakilgo haizea**  
**dokumentala bihar**  
**mustuko dute**



Kultura >> 14



**Urbasako Igoera jokatu-**  
**ko dute bihar 59 autok**  
>> 10



**Sakantzen Sareak saria**  
**jaso du Madrilen**  
>> 3



**Frankismoko biktimei**  
**omenaldia Altsasun**  
>> 7



**Berrikuntzak izanen dira**  
**Etxarriko ferietan**  
>> 5



**Altsasuko 23 odol-emaile**  
**omendu dituzte**  
>> 6



**Irurtzungo antzerki zikloa**  
**gaur abiatuko da**  
>> 15



Euskara ikasleak atzo AEKren Itsasi euskaltegian. AEK

## Euskaltegia betetzera

>> 5



## Zazpi aldiz elur

Urriaren 4a, larunbata, 20:00etan  
Altsasuko Iortia kultur gunean

Antzolatzaileak:

**berria** **Mark**



Altsasuko Udala

# ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

# LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

GURE  
REMOVE  
PLANA  
**%20**  
ra  
arteko  
deskontua

Tailerra eta erakusketa  
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu  
Telf.: 948 468 559  
info@lehalsaventanas.com  
www.lehalsaventanas.com



**Oihan Gastaminza Betelu**  
Bihar 3 urte! ZORIONAK Oihan!  
Ilargiraino eta bueltan maite zaitugu!  
Muxu asko aita, ama, Maddi  
eta traktorearen partez.



**Ihart**  
ZORIONAK polita!!  
Amona Isabel, Iñigo eta  
Martaren partez. Muxu  
handi bat.



**Aiert Balda Flores**  
ZORIONAK Sakanako txi-  
rrindulari hoberenari. 7 mu-  
xu handi, txapelduna!  
Maddi, Edu eta Nerea.



**Ekhi Igeltz**  
ZORIONAK Ekhi fa-  
milia guztian partez.  
Oso ondo pasa eta urte  
askotako!!!

## Bazkideek deskontua

Bakarra:

**3,50€**

Bikoitza:

**7€**

## Istailak

# 3-9

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: [gutunak@guaixe.net](mailto:gutunak@guaixe.net)

### Musika

**Ze esatek eta Glaukoma.** Lastailaren 4an, larunbatean, 23:00etan Etxarri Aranazko gaztetxean.

**Gaudeamus.** Lastailaren 5ean, igandean, 17:00etan Aralarko santutegian. **Bezpera kantatuak.**

### Antzerkia

**Ondoko hilobiko tipoa.** Lastailaren 3an, ostiralean, 21:30ean Irurtzuneko kultur etxean. **Txalo produkzioak.**

**Zazpi aldiz elur.** Lastailaren 4an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Ttantaka teatroa.**

### Dokumentalak

**Arakilgo haizea.** Lastailaren 4an, larunbatean, 17:30ean (gaztelaniaz) eta 19:30ean (euskaraz) Hiriberriko kontzeju etxean.

### Mendi irteerak

**Nafarroako mendi taldeen eguna.** Lastailaren 5ean, igandean, 9:00etan Altsasun. Sakanako Mendizaleak.

**VII. Arakilgo mendi ibilaldia. Ekai-Txurregi-Ollo.** Lastailaren 5ean, igandean, 10:00etan, Ekaitik. Ollon

bazkaria. Arakilgo Udalean izena eman.

**Aratz-Aizkorri.** Irailaren 5ean, igandean. **Altsasuko Mendigoizaleak taldea.**

### Bertsolaritza

**Jon Maia eta Beñat Gaztelumendi.** Lastailaren 3an, ostiralean, 22:00etan Etxarri Aranazko gaztetxean. Bertso-afaria.

### Bizikleta irteerak

**Galnato-Badaiaiko mendizerra.** Lastailaren 5ean, domekan, 8:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 32 km. **Burunda klubeko mendi bizikleta taldea.**

### Erakusketak

**Emakumea eta euskal pilota.** Lastailaren 3ra arte, egunero 17:00etatik 20:00etara Etxarri Aranazko kultur etxean.

**Zure herriko historia jakin nahi?**

Lastailaren 5era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta asteburutan 12:30etik 14:30era eta 18:30etik 21:30era Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Altsasu Memoria.**

**Dekorazio arteak.** Lastailaren 10era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara

eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **Yolanda Arnedoren tailerra.**

**Gure sustraiak ardatzen.** Lastailaren 26ra arte, Altsasuko Basoko Mari dendan. **Paz Treuquill maputxearen margoak.**

**Ziordiko liburutegiko azken 15 urteetako ekintzak.** Abenduaren 31ra arte, astegunetan, 16:00etatik 20:00etara Ziordiko liburutegian.

### Hitzaldiak

**Altsasu, 1934-1950.** Lastailaren 3an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Hizlariak: adineko altsasuarrak eta Altsasu Memoriako kideak.**

**Alzheimer eta bestelako demenziak: portaera aldaketetara moldatzeko jarraibideak.** Lastailaren 8an, asteazkenean, 17:45ean Altsasuko Josefina Arregi klinikan. **Afan eta Gizarte Zerbitzuak.**

### Deialdiak

**Hipotekek kaltetutakoan Plataforma.** Lastailaren 3an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.



**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Lastailaren 3an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

**Herri ostiralak.** Irailaren 3an, ostiralean, 20:00etan Altsasuko Foru plazan mobilizazioa, gero afaria. **Ospa!**

**Frankismo garaiko biktima altsasuarrei omenaldia.** Lastailaren 5ean, domekan, 12:00etan Altsasuko Foru plazan. **Udala.**

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Lastailaren 5ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Ostiralero SAIOA** 9:30etik 10:30era  
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

**107.3 FM**  
**beleixe** online  
www.guaixe.net

*Piztu irratia!*

## ASTEBURUKO AGENDA

### ASTEKO ERREPASOA:

albisteak, kirolak,  
Etxarriko feriak, Altsasuko odol-emaileen  
festa, Podemos-Ahal Duguren aurkezpena  
eta Altsasu Memoriaren aurkezpena...

Esataria: *Alfredo*

## SAKANA

Asteburuko jardunaldi irekien ondoren egiteko hori jarri dio bere buruari Sareak

# Sakantzen Sarea, lan antolamendu eredu berriak aztertzen

Oso arrakastatsua izan dira aste-buruan Sakantzen Sareak antolatutako bi jardunaldi irekiak. Uda-ko Ikastaroetan historia interes-gune bat zela identifikatu zuen sareak eta, horregatik, eskaintza hori egin zuten astebururako. Duela 2.000 urteko ibarrari buruzko eta mandazainen inguruko saioetan 50 bat pertsona egon ziren bakoitzean. Bai sakandarrak, baita kanpinetara etortzen direnak ere izan ziren jardunaldietan.

Sareko kide Jon Etxeberria Iju-

rrak azaldu digunez, asteburuko erantzunak indarra eman die bide beretik segitzeko, etorkizuneko jardueretan historia erakargarri bat izan daitekeelako: "Sakantzen sareak eta Ezpilleta elkarteak zeinek arpenegindezakegun aztertu eta hura indartu beharkodugu". Oihan Mendon eta Nicolas Arbizu saioen gidarierik eta Zamartzeko aterpeari eta Etxarri Aranazko Udalarari antolamenduan emandako laguntzagatik eskerrak eman zizkien.



## Sakantzen Sarea Madrilen saritua

Gazte Ekintzaile Sozialen saria irailaren 18an jaso zuen Jon Etxeberria Ijurrak

Universidad Europearen fundazioak International Youth Foundationekin eta Sylvan/Laurate Foundationekin elkarlanean seigarren urtez antolatu du Gazte Ekintzaile Sozialen sariketa. Sakantzen Sarea Jon Etxeberriaren bidez aurkeztu zen sariketara eta aitortza jaso ere: 3.000 euroko saria eta aste beteko

prestakuntza saioa Madrilen.

Etxarriarra irailaren 15etik 21era Madrilen egon zen. Esperientzia "oso positiboa" izan bazen ere "nekatuta eta karga handiarekin" bueltatu zen. Izan ere, zortzi egunetatik zazpitan "topera" aritzen ziren, 9:00etatik 23:00etara. Estatuko 10 ekintzaile sarituekin batera, Honduraskoak eta Mexikokoak ere izan ziren. "Pertsonalki eta Sakantzen Sarearendako positiboa izan zen. Sariak jendea eta proiektuak ezagutu, galderak egin eta beste lurraldeetara zabal-

tzeko aukera eman zidan".

Bai berari bai sareari ikusgarritasuna eman die Madrilgo esperientziak. Sari banaketa ekitaldian, publiko aurrean, hiru minutuko hitzaldian, Sakantzen berri eman zuen. Ijurrak esan digunez, "ikusituzten Sakana bakarria dela, eskualde identitate bat dela eta tokiko garapen endogenoan lan handia egin dela. Aurrera egiteko animatu gintuzten". Sarearen etorkizuneko egitekoen artean egun dagoen herriz herriko identitateari ibar identitatea txertatzen joatea eta sakandarrak aktibatzen segitzea leudeke.

### Onurak

Ijurrak esan digunez, Sakantzen Sareari nazioarterako ateak zabaltzeko aukera izan da Madrilgoa. "Informazioa prozesatzen ari naiz, ikasitakoa Sakantzen Sarean edo Sakanako proiektuetan nola txertatu aztertzeke". Garapen ekonomikora bideratutako bizpahiru ekintzaile zeuden topaketan. "Halako eredurik ez da ezagutzen. Baina badira lokalki lan eginez globalki pentsatzen ari diren beste erakunde batzuk eta halako ekimenen bidez elkarlanerako aukerak sortzen dira".

Elkarrekintza edo sare bat sor-

tzeko aukera aipatu digu etxarriarrak. Ijurrak, hala ere, argidu proiektu bat eskualde batetik bestera ezin dela bere horretan kopiatu "batzuen eta besteen iragana, oraina, ezagutzak... ez dira berdinak; egokitu beharra dago". Lleidako eta Soriako proiektuen berri jaso duela azaldu digu sareko kideak.

### Prestakuntzaz

Sarituak ez ziren klasean itxita egon. Hainbat espazioetan izan ziren, era dinamikoan eta taldeka lanean. Arlo pertsonalean "beste modu batera ikasteko desikasi" egin zuten. Edota sormenaren eta joko errazten bidez taldea elkar ezagutu zuen. Gorputz adierazpena eta hitzaldia nola osatu ere izan ziren ikasgaietako batzuk.

Ekintzaileek euren espazio pertsonalak izateko garrantzia nabarmendu zieten Madrilen eta, praktika gisa, yoga saioa izan zuten. Marka pertsonala, talentua ea haren identifikazioa, sormena eta beste ere aztertu zituzten aste hartan. Baina horiekin batera ekintzailetasun sozialari begira ere jarri ziren, finantziarioa eta beste aztertuz. "Enpresa-gizarte proiektuak ez dira gobernuz kanpoko erakundeak, errentagarritasuna bilatzen dute, gizarte inpaktua ere".



## Ekintzailetzaren hazia ereiten

Lantokiak utzi eta ostiralean Sakana Lanbide Heziketa institutuan izan ziren Sakana kooperatibako Alvaro Redondo eta Lakber SL-ko Josejo Ariz. Biak ere gradu ertaineko eta goi gradu 21 ikasleekin bildu ziren, haien artean ekintzailetza sustatzeko jardunaldi baten barruan.

Bi enpresetan mekanizatu lanak egin dituzte eta, ondorioz, txirbila eta ebaketa-likidoa (taladrina) sortzen dituzte. Bi hondakinak berrerabiltzeko konponbide sortzaileak ematea eskatu zieten ikasleei. Lau taldetan banatuta, bakoitzak proposamen bat aurkeztu zuen. Sakana kooperatibak eta Lakber SL-k proposamen horiek aztertu egiten dituzte. Ikasleek enpresak ezagutzeko aukera izanen dute.

### ELKARLANEAN

Cederna-Garalurrek ekintzailetza sustatzeko jardura izan zen hori. Ikasleen artean ekintzailetza "bizitzaren aurreko jarrera positibo, sortzaile eta eraldakor" gisa sustatu nahi izan zuten. Susana Mendinu etak esandigunez, institutuaren etabien presen elkarlanari esker gauzatu zen: "Sakanarekin eta ibarrarekin duten konpromisoak borondateak bat egitea ekarri du, etorkizun hobea eraikitzeko".

**KARASATORRE**  
HESTEBETE ARTISAUAK

Artisan erara egindako hestebetrak  
Autozerbitzua  
Etxeko tripekiak

Kale Nagusia, 22 · Etxarri Aranatz · 948 460 036

ETXARRI ARANAZKO  
**FERIAK**  
URRIAK 4-5



Raf Atxuri

astekoa

## Burdinbidezko udazkena

150 urte dira Beasain eta Olatzagutia burdinbidez lotu zituztela. Tarte menditsu eta zaila gure hau, 23 tunel behar izan zituen. Burundako eta Goierriko historiakerrotik aldatu ziren lan haren ondorioz. Geroztik Christian Andersenek Olatzagutian bizi izandako elurtea, Ormaiztegiko Eiffelena ez den burdinezko zubiarena, Altsasuren “burdin-

dide hiria” edo “villa ferroviaria” izendapena.

Trenarekin batera janariak, harrizarrak, metal puska handiak, jendeak, ideia eta asmakuntza berriak joan eta etorri ziren. Piamonteko langileek halako akordeo diatoniko bat ere ekarri zuten, apaizek infernuko auzotzat hartuko zutena, erromerriak gozotasun eta bizitasunez

hornituko zituen.

Nirineroni trenapoetikoki udazkenerako dela iruditzen zait. Hala ulertu zuen Lizardi handiak ere 1929an *Bultzi-leiotik* olerki bikainean: “*Oi lur, oi lur / ... Arto musker; / mendi, baserri zaarrak; / ale gorritz / abaildutako sagarrak; / oro laino mee batek estalia, / urrez oro / eguzkiak yantzia*”.

Bultziaren irudi erromantiko-

ak luzaz iraundu han eta hemen gogoa herritarren gogo eta oroimean. Hainbat liburu, margolan eder, *Doctor Zhivago* filmaren hainbat eszena zoragarri horren lekuko dira. Altsasu dagoeneko ez da burdinbide hiria, “parada y fonda” izan zeneko garai hura urrun da. Erabiltzaileok autopistez xortuak burnibideak ahaztu geni-

tuen eta gobernuak abiadura handiaren alde egin dute. Ordu-tegi murriztuak eta bidaia aukera gutxiago izanik ere Altsasu oraino loturik dugu burnibidez eki, mendebalde zein iparrarekin. Probestu dezagun: “*Zure bazter / gurazko aberria, / doa zoro, / ta (bertan ni) bultzia... / Oi, ene lur, / baninduzu zerea, / zu landu, ta zure / sariz betea*”.

### hara zer dien

## Laguntza sozialak etorkinendako, zurrumurru-ez

Hiritartasunaren tratu berdintasuna oinarriko printzipioa da gizarte demokratikoetan. Gainera, europar legediak debekatu egiten du sexu, erlijio, jatorri etniko, edota ezgaitasun, adin, sexu orientabide edota sinismenengatik etor daitekeen edozein bazterkeria (Oinarriko Eskubideen Eskutitzaren 10, 19, 20 eta 21. artikulua).

Hemen bizi eta lan egiten duten

atzerriko jatorria duten langileek gainontzeko hiritarrek ordaintzen dituzten zerga berdina ordaindu eta kotizatzen dituzte. Horregatik, bai moralki nola legalki desiragarria da euren kotizazioaren arabera dagozkien prestakuntza, laguntza sozialak jasotzea (langabeziakoak, ikasketarakoak, osasungintzarakoak....).

Laguntza soziala jasotzen duten

etorkinen kopurua %7 da, bertako herritargoaren %46aren aurrean (EAE).

Gizarte zerbitzuetako gasturik handiena etorkinen presentzia txikiena den ataletara bideratzen da (dependentzia, ezgaitasuna....) %1 soilik, nafarren %19,8aren aurrean. Iturria: Instituto Nacional de Estadística. Boletín Enfoques.

Etorkinen adinaren batz-bes-

tekoa 19 eta 44 artean dago estatuan. Osasun zerbitzuen erabilera baxuagoa da bertakoena baino. Iturria: Boletín Enfoques; EIN.

Gizarte zerbitzuetako laguntzak pobrezia edota ongizate ezaren egoerak arintzera bideratuak daude eta unibertsaltasun irizpidean oinarritzen dira. Laguntza horiek jasoko dituen pertsona, erkidegoan, edota

lurraldean bizi den edozein pertsona fisikoa izan da, eta berau jasotzeko bidea irekiko duen zirkuitua errolda-agiria izan da.

Ez dago atzeritarrei bertako en aurrean lehentasuna emango dion erregulaziorik. Ezta ere bere erabilera bide berezirik. Gainera, atzeritar nazionalitatea ez da inoiz ere baldintza izaten lehentasun bezala diru-laguntza horietara jotzeko garaian, eta ez dago kuporik ere jatorrien arabera laguntza horietara jo ahal izateko.

Informazio gehiagorako: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

**Bego Zestau,**  
**Immigrazio Zerbitzua**

### barrutik kanpora

## Lurralde eta ingurumen eskubideak

Aurten ere hemen, gaituzue gure ideiak eta gogoetak plazaratzeko gogoekin eta lehenik eta behin bailarako komunikabide euskaldunak emandako aukera hau eskertu nahi dugu. Jakitun gara komunikabide honek aurrera egiteko behar dituen baliabideak zenbateko esfortzua suposatzen duten eta honetaz idatzi nahi dugu gaurkoan, esfortzuaz.

Gure bizitzak aurrera eramateko behar dugun beste lan egiten

dugu egunero, ikasi, maitatu, borrokatu edota soldatapean lan egin. Bizitza duin bat eramateko beharrezkoak direnak dira horiek. Kontua da, ez ote garen azken denboraldian gure barnera gehiegi begiratzen ari eta kolektiboa dena ahaztua dugun. Eragile sozialen presentzia kalean asko murriztu da eta ez dugu uste orain dela hilabete batzuk genuen indarra eta kemena desagertu diren gure bailaran.

Denboraldi hau berezia izango da, hurrengo maiatzean hauteskundeak daude eta Nafarroan aldaketa sakon bat izateko aukera inoiz baino errealagoa da. Eragile sozialen lana ez da hauteskundeak irabaztea. Guri dagokiguna zera da, urte hauetan borrokari loturiko pertsonak, egoera sozio-ekonomikoak arduradunak dituela ikusi dutenak eta orokorrean politika neoliberalak pairatu dutenak kalera ateratzea beren esku-

bideen defentsan.

Lan honetan aurreko urtean hazi genuen gutun sozialaren eztabaida bukatua dago eta orain borrokarako lanabes bezala erabiliko dugu. Hauek dira bertan agertzen diren lanildoak: Lurralde eta ingurumen eskubideak, lanari loturiko eskubide sozialak, eskubide ekonomikoak, jendar-tearen parte hartzea politiken diseinuan, etxebizitza, hezkuntza, osasunari buruzko eskubideak,

zaintza eta bizitzaren mantentzea, emakumeon kontrako indarkeriarik gabeko bizitza, jatorri aniztasuna, aniztasun sexuala, aniztasun funtzionala, hizkuntza eskubideak, eskubide kulturalak. Hauetariko bat edo bi edo denek zuzen eragina dute. Lotu borrokari.

**Abian plataforma**

# Guaixe

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • [guaixe@guaixe.net](mailto:guaixe@guaixe.net)  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa  
**MAKETATZAILEA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • [publizitatea@guaixe.net](mailto:publizitatea@guaixe.net)  
eta Eneida Carreño Mundiñano • [publi@guaixe.net](mailto:publi@guaixe.net)  
**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Maialen Huarte Arano eta Eñaut

Arribengoa Apaolaza  
**ZUZENTZAILEA:** Garazi Garzia  
**ARGITARATZAILEA:** Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILEA:** Goizeder Anton Iturralde • [bierrik@guaixe.net](mailto:bierrik@guaixe.net)  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • [argi@guaixe.net](mailto:argi@guaixe.net)  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea

**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

**LAGUNTZAILEAK:**

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hezkuntza Politikako Salburuzordeta

## &gt;&gt; Etxarri Aranatz

## Aldaketekin heldu dira feriak

**Igandean izanen da azoka eta gazta txapelketa. Basogintzak duen garrantzia nabarmenduko da larunbatean**

Badira urte batzuk abereferia desagertu zela. Garai batean zuen zentzia ahuldu zen. Joxi Bakaikoa alkateak azaldu duenez, "feriak birformulatzeko eta indartzeko beharra" zuen. Ospakizuna "berrindartzeko" hiru ardatz hartu ditu oinarri Etxarri Aranazko Udalak, "indarguneak potentziatuz eta, aldi berean, elementu berriak sartuz". Alkateak sakandar guztiak ferietara gonbidatu ditu.

Bakaikoak azaldu duenez, ferien ikuspegi sozio-ekonomikoa indartzeko, bertako ekoizpenaren salerosketa indartzea erabaki dute. Horregatik, larunbat arratsaldean egiten den azoka igandegoizera pasada. Begoña Goikoetxea ekoizleak azaldu duenez, "larunbat arratsaldekoa gehiago zuen erakusketatik eta igandera pasaz salerosketa bulkatu nahi dugu". Sakanako ekoizleek aparte, ibarrean sortzen ez diren produktuen ekoizle nafarrak izanen dira, 35 inguru. Goikoetxeak gaineratu duenez, "kalitatezko eta sasoiko produktuak izanen dira". Igande goizera pasa da ere Sakanako artzainen gazta txapelketa. 100, 70 eta 40 euroko hiru sari banatuko ditu epaimahaiak.

**Kirola eta basogintza**

Kirol probek azken urteetan

## Irudia



ETXARRI ARANAZKO  
**FERIAK**  
2014ko URRIA

Etxarri Aranazko ferien irudi korporatiboa dena Olatz Aldasorok sortu du. Feria indartzeko hartu diren hiru ardatzak islatzen ditu.

garrantzia handia izan dute Etxarri Aranazko ferietan. Mendira Joan Etorria lasterketaz aparte, Nafarroako I. mailako aizkolariak neurtu izan dira eta aurten ere hala egingen dute. Kirolaren ikuspegi ludiko hori igande arratsaldean izanen den pala jaialdiarekin osatuko da aurten.

Feria indartzeko azken ardatza basogintza izanen da. "Gure herriak basoarekin duen lotura; basoaren aberastasuna; gure natura-baliabideen balioa ferian islatzea nahi dugu; herriko jarduera ludiko/ekonomikoekin izan duen harreman historikoa nabarmenduz", esan du Bakaikoak. Hala,

larunbat arratsaldean San Juan baleontziaren inguruko erakusketak izanen da, maketa bat barne. Haren pieza bat Etxarriko plazan landuko dute. Aldi berean, Enneco, Aritzaren memoria parkeari buruzko argibideak jasotzeko erakusketak izanen da plazan. Basogintzaren atal ludikoa motozerra bidezko taila erakustaldiak osatuko du.

**Egitaraua**

## &gt;&gt; Lastailak 4, larunbata

**17:00etan** Bordetxe abere zirkoa.  
**18:00etan** Ikusgarri: tailaketa motozerrarekin.  
**19:00etan** Herri proba, Leitzako taldeak.  
**19:00etan** Giza katea, Etxerat-ek antolatuta.  
**20:00etan** Auzatea. Karriestu elkarte.  
**20:00etan** Salbea.  
**20:30etik 22:00etara** Dantzaldia Tximeleta taldearekin.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
**00:30etik 3:00etara** Dantzaldia Tximeleta taldearekin.  
**Arratsaldean zehar:** San Juan baleontziari buruzko erakusketak.  
Enneco, Aritzaren memoria proiektuari buruzko erakusketak.  
Sakanako trikitalariak.

## &gt;&gt; Lastailak 5, igandea

**10:00etatik 15:00etara** Ekoizle eta artisauen azoka.  
**11:00etan** XXXIX. Mendira Joan Etorria.  
**11:15ean** Auzatea, Larrañeta elkarte.  
**12:30ean** Sakanako artzainen XI. gazta txapelketa.  
**13:00etan** Nafarroako I. mailako Aizkora Txapelketako finala.  
**15:00etan** Zikiro jana, estalopean.  
**18:00etan** Pala partidak.  
**19:00etatik 22:00etara** Dantzaldia.  
**21:00etan** Zezensuzkoa.

**Etxarriko Gazte Asanbladaren egitaraua**

## &gt;&gt; Lastailak 3, ostirala

**20:30ean** Trikipoteoa.  
**22:00etan** Bertso-afaria: Jon Maia eta Beñat Gaztelumendi.  
**Ondoren** Gaupasa DJTxorekin.


## &gt;&gt; Lastailak 4, larunbata

**23:00etan** Ze esatek eta Glaukoma.



Joan den urtean postuak aterpean egon ziren.

## SAKANA



Ikasleak euskaltegiko pasabidean. Informazio gehiago: 948 564 258. AEK

## Ehun bat sakandar euskalduntzen hasi dira

**AEK Irurtzunen, Etxarri Aranatzeko eta Altsasun ematen hasi da klaseak ematen**

Aurreko asteazkenean hasi ziren Sakanan AEKren helduen alfabetatze eta euskalduntze klaseak. Ibarreko AEK-ko arduradun Patxi Floresek esan digunez, joan den urteko antzerako ikasle kopuruak eman du izena, ehun bat. Guztiak 11 taldetan banatu dituzte. Irurtzunen bi talde daude. "Bat pasa den urtetik ari da euskalduntzen eta bestea aurreratuago dago. Gehienak gurasoak dira", azaldu digu Floresek.

Etxarri Aranatzeko erdiko maila duen talde bat ari da AEKrekin ikasten. Gainontzeko zazpi taldeak Altsasu Itsasi euskaltegian ari dira. Han maila gehienak opatzeko aukera dagoela esan digu Sakanako AEK-ko buruak. Oraindik ere euskaltegian informazioa jasotzeko deiak jasotzen ari dira eta talde gehiago sor litezkeela esan digu Floresek. Gogora ekarri du ere ikasturte akaberan asistentziaren %80 edo gehiago duten ikasleek Mank-en Euskara Zerbitzuak emandako diru-laguntza eskuratzeko aukera dutela.

## SAKANA

## Bi sari berri banatu dira Sakatxartela Asteburuan

Laugarren Sakatxartela Asteburua pasa berri dugu eta, iragarri bezala, Belexeguaixe Txartela era-biltzaileen artean bi sari banatu dira. Asteburuan 51 kidek erabili zuten txartela eta saria Sandra Jakarendako eta Oskar Rodriguezendako izan dira. Aurrenekoak Bibehi enpresako egun erdirako auto elektriko baten alokairua eta Olatzea hotelean bi pertsonarendako bazkaria irabazi du. Bigarrenak, berriz, Iortia kultur guneko zine-

marako hila beteko bi bono eta Belexeguaixe txartel bat.

Sakanako 80 establezimendu baino gehiagok, urte guztian, deskontu eta abantailak eskaintzen dizkiete Belexeguaixe txartela duten Bierrik fundazioaren 1.550 babesleei. Sari hauen bitartez, Bierrikeko lagunen fideltasuna saritu nahi da. Bazkideek, herri komunikabideak bultzatzeaz gain, ibarreko ekonomiaren alde egiten dute erosketak Sakanan eginez.

**Belexeguaixe txartela lortzeko**

948 564 275 eta 948 562 107  
hots egin edo [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)  
atarian sartu.

**Hurrengo Sakatxartel asteburuak**

Azaroaren 28tik 30era.



Oskar Rodriguezek eta Juana Jakak jaso dituzte sariak.

&gt;&gt; Altsasu

# Nafarroako Odol Emaileen Elkarteak Altsasuko 23 emaile saritu ditu

Eñaut Agirrebengoa

Adonak (Nafarroako Odol Emaileen Elkarte) Altsasuko 23 odol emaile omendu zituen larunbatean ospatu zen Altsasuko odol-emaileen festan. Dozenaka lagun bildu ziren Iortia areto nagusian, omenaldi ekitaldia bertatik bertara ikusi eta, bide batez, Erkundengo Ama abesbatzaren kantuek aditzeko.

Adonako idazkari den Asun Adotek eman zion hasiera ekitaldiari, odol emailei eskerrak emanaz, eta odola ematearen garrantzia azpimarratuz. Adotek adierazi zuenez, odola emateak bizi ugari salbatzen ditu, baina haren esanetan soilik populazioaren %4a da odol emaile. Ondoren Adonako zuzendari den Jose Maria Masek hartu zuen hitza, odol emateak Altsasun eta, oro har, Nafarroan bizi duen egoera azaltzeko.

Azalpen horien ostean, domina banaketari ekin zitzaion, Erkundengo Ama abesbatzak abesten zuen bitartean. Guztira 23 odol emaile saritu ziren (denek ezin izan zuten ekitaldian egon), 10 urrezko dominarekin (odola 50 aldiz emateagatik) eta 13 zilarrezkoarekin (odola 25 aldiz emate-



Gazteei odol-emaile egiteko gonbitea egin zien Adonako buruak.

gatik). Behin sariak banatuta, abesbatzak kantuan itxi zuten ekitaldia, eta ondoren Iortia bertaratu koei askaria eskaini zitzaion.

## Gazteen kontzientziazio falta kezka iturri

Ekitaldiaren aurretik Altsasuko delegazioko buru den Maite Mazkian Apestegiak adierazi zuenez,

gazteak orokorrean ez daude kontzientziatuta odola ematearen garrantziaz, eta hori, Mazkianaren esanetan, arazo handi bat da: "adineko jendea odola emateko pronto dago, baina hauek pixkanaka erretiratu joaten dira. Egoera horretan, gazte jendea behar beharrezkoa da, baina hauek ez daude behar bezain kontzientziaturik". Jendea animatze aldera, azpima-

## 775 odol-emaile Altsasun

	2013	2012
Odola eman zuten	242	290
Odol emateak	371	535
Arruntak	369	531
Autotransfusioak	2	4
Atzera botatako emateak	62	105
Autobuseko emateak	305	453
Beste inon egindako emateak	66	82
Emaile berriak	17	25

## Omenduak

### Urrezko domina

Jose Miguel Berasategi Zabalo, Charo Etxebarri Zubillaga, Reyes Letona Juarez, Maria Jesus Martiarena Alegria, Carmelo Navarrete Medina, Patxi Pajares Aguardo, Jose Reyes Palacios Horna, Juana Maria Rendo Gonzalez, Petra Rendo Gonzalez eta Fco. Javier Zabaleta Bergara.

### Zilarrezkoak

Migel I. Agirre Goikoetxea, Epifanio Azanza Munarriz, Fco. Jose Cerezo Canalejo, Margari Ziordia Sanz, Juan Etxeberria Aiestaran, Lorenzo Gonzalez Urkizu, Joaquin Grados Sanchez, Pablo Larraya San Roman, Fco. Navarro Palomares, Carlos Otaegi Galvan, Jesus Palop Quesada, Maria Jesus Porta San Roman eta Francisco Beramendi Espinosa.

rratu nahi izan zuen odola ematea oso erraza dela eta bizi ugari salba daitezkeela.

Altsasun 2012tik 2013ra odol emateen kopuruak izaniko jaitzieraz galdetuta, Mazkianaren lasaitasunez agertu zen: "2012an odol emate gehiago izatearen arrazoia zera da, urte horretan lau aldiz etorri zela odola jasotzeko autobusa, 2013an baino aldi bat gehiago. Proporzioan jarrita, antzeko kopuruz ari gara".

## SAKANA

### Herrira-ren kontrako operazioan atxilotuek auzitara eramane dute Espainiako Gobernu

Kalte moralak egin eta euren ohera urratu izana egotzi diote gobernuari, poliziaren aurrean deklaratu aurretik delitu larriak egotzi zizkieleko barne ministroak.

Gaur urte bat Guardia Civilak Herrira mugimenduko 18 kide atxilotu zituen, haien artean Fran Balda arbizuarra. Atxilotu eta berehala Jorge Fernandez Diaz barne ministroak telebistan adierazi zuen Herrira "ETAren tentakulua" zela. Gainera, haien nortasun agirik argazkiak eta bizitza pribatuari buruzko datuak zabaldu zituzten. Errugabetasun presuntzioa urratu dela uste dute auzipetuek eta auzitara joko dute Espainiako Gobernuaren kontra. Atxilotu bakoitzarendako 100.000 euroko kalte-ordaina eskatu diote ministerioari.

Eloy Velasco Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak agindu zuen euskal presoek eskubideen aldeko mugimenduaren aurkako polizia operazioa. Auzipetuei ETAko kide izatea, "terrorismoa goratzea" eta "erakunde armatua finantzatzea" leporatu die epaileak. Mugimenduen jarduna bi urterako eten zuen, gainera, epaileak. Protesta ugari eragin zituen operazioak.

&gt;&gt;

# Aralarko aingeruaren gertuko aldeko meza

**Igande eguerdian egingen da hildako Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiako kide, anai etxeetako eta santutegiaren ongileen aldeko elizkizuna**

Garai batean, San Migel egunaren biharamunean, irailaren 30ean, hildakoen aldeko elizkizuna egiten zen Aralarko santutegian. Garaiak aldatu dira eta meza astegunetan egitea zaildu da, baina elizkizuna berreskuratu egin da eta San Migel hurrengo igandera pasa da. Hala, hildako kofrade, anai etxeetako eta ongileak gogoan izanen dituzte igandean. 12:00etan Gaudeamus gregoriano abesbatzak emanaldia eskainiko du. 12:30ean hasiko da zendutakoen aldeko meza. Akaberan aingeruaren irudia gurtzeko aukera izanen da. Arratsaldean, 17:00etan, bezpera izanen da, gregoriano doinuak lagunduta eta despeditzean, atzera ere, aingeruaren irudia gurtzeko aukera izanen da.

## Anai etxeak

Aralarko aingeruak, urtero, 300 herritatik barnako ibilbidea egiten du. Herri bakoitzean San Migelen anaiaren etxe bat izaten da eta

## Aralarko santutegia bilgune



Fedeak gidatuta, ehunka fededun elkartu ziren astelehenean lainopean zegoen Aralarko santutegian. San Migel egunak, atzera ere, euskal herritarren artean sainduekiko dagoen debozioa agerian utzi zuen. Izan ere, asko eta asko izan ziren santutegira igo eta goizeko hiru mezetan edo arratsaldeko elizkizunean izan zirenak. Aingeruaren irudia gurtzeko aukera ez zuten alferrik galdu askok. Ezta Goñiko Teodosiok eraman zituen kateak gorputzetik pasatzeko aukera ere. Meza nagusia Juan Antonio Aznarez paezpiku laguntzailea eman zuen santutegiko kaperau eta kaperau laguntzaile Mikel Garziandiaren eta Jesus Mari Sotilen, Jose Mari Alemanen eta Antonio Lopezen laguntzaz. Lekunberri, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz eta Bakaikuko abesbatzako kideak abestu zuten elizkizun nagusian.

han hartzen dituzte aingeruaren irudia eta harekin doazenak (garai

batean baita mandazaina eta mandoa). Etxea nagusiz aldatzen bada,

nagusi berria izaten da San Migelen anaia.

## » Hiriberri



## Etzi mustuko da erabilera anitzeko gela

**Kontzeju-etxean dago eta kontzejuaren eta udalaren arteko hitzarmen baten bidez kudeatuko da**

Arakilaren arteko harremana estutu duen espazioen sare bat sortzeko asmoa du udalak. Sareko lehen elementua Hiriberriko erabilera anitzeko gela izanen da eta bigarrena Etxarrego frontoia. Aurrenekoa etzi mustuko dute, Arakilgo haizea dokumentalaren proiektio bikoitzarekin.

Arakilgo Udalak Hiriberriko Kontzejuarekin 20 urterako hitzarmena sinatu dute. 20 urteko indarraldia du akordioak. Udalak gelaren erabilera dohainik izanen du han ikastaroak, hitzaldiak, erakusketak eta bestelakoak antolatzeke. Bi erakundeek adostu dutenez gelaren erabilera koordinatuko dute, baten eta bestearen programazioak elkar ez zapaltzeko.

Hitzartutakoaren arabera, eginen den jarduerak garbiketa egitea eskatzen duenetan udalaren ardura izanen da hura egitea. Mantenua eta bestelako kostuen (argindarra, berogailua...) ardura, berriz, kontzejuarena izanen da. Martxan jartzen denean berraztertuko dute hitzarmena. Bestalde, bi erakundeen bizkar izanen da igogailuaren mantenua.

### INBERTSIOA

Gela moldatzeko 134.059 euroko inbertsioa egin da. Nafarroako Gobernuaren Lau urteko Tokiko Azpiegitura Planetik 65.160 euroko diru-laguntza jaso dute (52.000 euro inguru joan den urtean, gainontzekoa aurten). Arakilgo Udalak 50.000 euro jarriko ditu eta Hiriberriko Kontzejuak 18.899 euro.

### SAKANA

## Ordezkarri sakandarrak biomasa azokan

Nafarroako Baso Biomasa-ren II. Azoka ospatu zen joan zen astean, ostegun eta larunbat artean. Iruñeko Baluarte Biltzar Jauregia eta Auditorioan 35 erakusketarietako biomasa-ren erabilera oinarritutako hainbat erregai-mota eta instalazio termiko erakutsiko zituzten. Alor horretako (erregaiak, basoko arloa, ingeniari-tza, instalazioak, zerbitzu energetikoak eta sistemak) jardura-sektore askotako enpresak eta erakundeak izan ziren azokan, biomasa-ren ziklo guztia hartuz. Enpresa horien artean Etxarri Aranazko Naparpellet eta Altsasuko Orleghy Renovables enpresak zeuden.

### SAKANA

# Irurtzungo oinarritzko osasun eskualde dekretua bertan behera

**Nafarroako Gobernuaren dekretuan Irurtzungo eskualderako gizarte-langile kargurik ez zen aurreikusten**

**Irurtzun aldeko oinarritzko osasun eskualdea 1985ean sortu zenetik ez da sekula gizarte-langilerik izan**

Nafarroako Justizia Auzitegi Goreneko administrazioarekiko-azuzi epaitegiak indarrak gabe utzi du Irurtzun aldeko oinarritzko osasun eskualdea eratzeko Nafarroako Gobernuak emandako dekretua. Hilaren 23an emandako epaiak arrazoia ematen dio Nafarroako Gizarte-Lanean Diplomatu eta Gizarte-Laguntzaileen Elkargo Ofizialari.

Epaileek diotenez, dekretuarekin Nafarroako Gobernuak

1985eko Nafarroako Osasun Zonifikazio Foru Legea urratzen duela. Arau horretan biztanle kopuru bakoitzari dagokion gizarte-langile ratioak zehazten dira (langile bat 10.000 eta 20.000 pertsona arteko eskualdeetan). Dekretuak ratioak ez ditu errespetatu eta, horregatik, baliogabetu dute gobernuaren erabakia.

### Eskualdeaz

Irurtzungo oinarritzko osasun eskualdea 1985eko legearekin sortu zenean ez zen gizarte-langile kargurik jaso eta lanpostu hori ez da sekula egon. Eskualdeak Iza (lau herri), Imotz, Larraun, Lekunbe-



Irurtzundarrak itzalpean eserita. ARTXIBOA

rri, Araitz, Betelu eta Sakana (Arakil) ditudik Arruazura) hartzen ditu.

8.345 biztanle guztira. 29 urte gizarte-langilerik gabe.

### » Altsasu

## Udalak frankismo garaiko biktimak omenduko ditu

**Domekan, 12:00etan, Foru plazan haien omenezko plaka bat jarriko da. Altsasuarrak ekitaldian parte hartzera gonbidatu dituzte**

Altsasuko Udaleko Memoria Historikoko batzordean landuriko ekimena da etziko, Altsasu Memoria kolektiboarekin elkarlanean. Frankismo garaian errepresaliatutako altsasuar guztiak omenduko dituzte ekitaldi horretan, plazan, haien oroimenezko

plaka jarritz.

Memoria Historikoko batzordeak badarama hilabete batzuk lanean. Orain arte informazioa eskuratzeko izan da bere zeregina. "Datuak eskuan, garai beltz haie-tan sufritu zuten pertsonen omendaldi instituzionala egitearen beharra ikusi dugu", esan du Garaiz Urrestarazu Zubizarretak.

Alkateak gaineratu duenez, "berdintasun eta justiziaren balo-

reak totalitarismoaren aurrean defendatzeagatik izan ziren pertsona horiek erailak, kartzelatuak edota errepresaliatuak". Urte askotan ahaztuak izan direla eta Altsasuko herriak errepresaliatu haiek bere oroimenean izatea "justizia, egia eta erreparazioaren izenean beharrezkoa" dela uste dute udalean. Aipatu hiru balore horietan elkarbizitza eraiki behar dela gaineratu dute batzordean.



Arenalek mustu zuen eskultura 2008an

### »

## Kartzela Gure Etxea eraikinera bueltatu da

**Altsasu Memoriak 1936aren inguruko erakusketa zabaldu du**

Joan den mendeko 30eko hamarkadako jantzi, agiri, argazki eta abarrekin antolatu du Altsasu Memoriak garai harren inguruko erakusketa. Gure Etxea eraikinean orduan zegoen kartzela eta gaur egungo erakusketa gelan, bere berezko kokapenean, erreproduktzioa egin dute.

Altsasu Memoria taldeak herriko historia osatu eta berreraikitzeke lanean ari da. Bi urte egin ditu dagoeneko egiteko horretan. Herriaren lehen aipamenetik 1.950 urtera arteko tartean jasotako

informazioa ikus-entzunezkoen laguntzaz eman zuten Iortia kultur gunean martxoaren 28an. Han azaldutako asko dago orain ikusgai. Lehen aipamenean, eta euskararen inguruko testigantzak daude, baina gerra zibilean gertatutakoari erreparazioa zabala egiten zaio erakusketan.

Kolektiboko kide Josu Imaz Priemek esan digunez, taldea egunero ari da informazio berria jasotzen. Baina jasotako garai batekoa plazaratunahizuten. Bidebategi, aukera baliatu nahi izan dute "erakusketa elkargune bihurtu, informazio gehiago jaso edo kontrastatzeko".



Mustutze egunean jende ugari gerturatu zen.

Imazek esan digunez, erakusketa finko bat prestatzea zaila da, baina jasotako materiala gorde eta etorkizunean beste zabalago bat anto-

latzea ez dute baztertzen. Gaia asko aztertzen ari dira eta haiek plazaratzeko aukeraketa egin beharko dutela azaldu digu Imazek.

### SAKANA

## Herritarrei arreta emateko telefono zenbaki berria 948 012 012

**Nafarroako Gobernuaren eta Altsasuko eta Olatzagutiko udalen arteko telefono zenbaki berria mugikorretatik erabili ahaliko da, 012 zenbakia telefono finkoetatik**

Orain arte foru administrazio eta zerbitzura atxikitako udalen informazioa 012 telefonora hots eginez

jaso zitekeen. Telefono mugikorreko konpainia batzuekin zenbaki hori erabili ezinenez, arazoa konpontzeko 948 012 012 zenbakia martxan jarri zen pasa den asteartean.

Tarifa finkoak dituzten telefonoetatik dohainik hots egiteko

aukera izanen da. Bi telefono zenbakietan, astegunetan, 08:00etatik 19:00etara, herritarrek Nafarroako Gobernuaren eta aipatu bi udalen informazioa jaso dezakete, izena eman eta izapideak egin edo ekarpenak egin ditzakete. Gazte-

laniaz eta euskaraz.

**Irurtzungo eskualde-bulegoa**  
Herritarrek informatzeko, izapideak egiteko edo Nafarroako Gobernuaren aurrean ekarpenak egiteko lau bide dituzte: telefonozko arreta; navarra.es ataria; sare sozialak eta aurrez aurreko bulego-sarea. Eskualde-bulego horietako bat Irurtzungo Trinitate kaleko 24. zenbakian dago.

&gt;&gt; Altsasu

# Ekitaldiak gaztetxearen 24. urteurrenean



Lapiko artean ibiliko dira bihar eguerdian gaztetxe inguruan. ARTXIBOA

**Gaur hasi eta domeka bitartean hainbat ekitaldirekin ospatuko da efemeridea**

Altsasuko Gazte Asanbladak (AGA) gaztetxearen urteurrena ospatzeko egitaraua prestatu du, gaur bertan abiaraziko dutena. Duela 24 urte, 1990eko lastailaren 5ean, AGAko kideek Casa de Socos

rro zena okupatu eta gaztetxe bihurtzeko lanari ekin zioten. Hura lortu aurretik kanpaina zabala egin zuten, hainbat ekimen eta jairen bidez beharra erakusteko. Udalarekin ere hartu-emanak izan zituzten, baina fruiturik eman ez eta okupazioan

## Egitaraua

- >> **Lastailak 3, ostirala**  
17:00etan Haurrendako jolasak.  
20:30etan Eta oain ze? Ttak antzerki taldea.  
22:00etan Afaria gaztetxean.
- >> **Lastailak 4, larunbata**  
Eguerdian Kalderete txapelketa.  
20:00etan Gabenara taldea.  
22:00etan Moxaila banda elektrotxaranga.  
00:00etan Txupinazoa eta askaria.
- >> **Lastailak 5, domeka**  
18:00etan Merienda eta bideo emanaldia.

opatu zuten irtenbidea. Lokalak izanda makina bat ekitaldi antolatuko dituzte urteetan AGAk. Egun hauetan segida dutenak.

Ospakizun egitaraua herenegun abiatu zuen AGAk, Foru plazan batzarra eginez. Atzo sukaldaritza begetarianoari buruzko tailerra eta afaria izan zituzten.

&gt;&gt;

# Guardia Civilaren zitazioak salatu dituzte

**Ostiralean hiru kontzentrazio egin ziren. Presoekiko elkartasunari zigorrik ez jartzeko aldarrikatu zuten**

Aurreko ostiralean sei altsasuar (preso ohiak batzuk) Guardia Civilaren Iruñeko egoitzan deklaratzera deitu zituzten. Guztiek ere deklaratzeari uko egin zioten. Guardia Civilak jakinarazi zien deialdia herriko festetan presoan alde egindako brindisarekin zerikusia zuela. Ezer gehiago ez.

Espainiako Auzitegi Nazionalaren esku dago auzia. Hark Iruñeko epaile bati galderak bidali eta haren aurrean deklaratu beharko luke altsasuarrek. Horren zain gelditu dira altsasuarrek. Nafarroan udan izan diren ekitaldien-



Zitazioengatik protestak egin zituzten aurreko ostiralean.

gatik antzeko egoeran 138 nafar daudela jakinarazi zuen. Zitazioak "beldurtzeko beste modu bat"

direla azaldu eta presoan euskal herriratzea eskatzen segitzeko deia egin zuten.

&gt;&gt; Etxarri Aranatz

# Bi etxarriar Madrilen deklaratzeko

Atzo Espainiako Auzitegi Nazionalako Javier Gomez Bermudez epailearen aurrean deklaratu zuten zortzi nafarrek. Haien artean zeuden Joxe Aldasoro eta Patxi Arratibel etxarriarrak. Ekin-eko kide izatea egotzen diete zortzietan. Atzo guztiek ere haien aurkako akusazioak "faltsuak" direla eta euren aktibitate politikoa zigortzea beste helbururik ez duela salatu zuten.

Auzipetutakoek nabarmendu zuten gehienak inkomunikatuta egon zirela, Guardia Civilaren eskutan, eta torturak salatu zituzten. Horregatik atzo eskatu zuten "bortxa eta indarkeriaren bidez



Etxarriarrak (eskubian ator ilunez) gainontzeko auzipetuekin batera.

sinarazten dizkiguten deklarazioak" kontuan ez hartzea eta haiei balioa ez ematea. Aldi berean,

"epaiketa politikoa bukatzea eta jazarpenaren gorpil zoroa geldituzko" exijitu zuten.

&gt;&gt; Altsasu



Deialdiak batu zituenetako batzuk.

## Podemos -Ahal Duguren jendaurreko aurkezpena

Aurreko ostegunean 30 pertsonen aurrean aurkeztu zuen bere egitasmoa Podemos-Ahal Duguk. Indar berriak hainbat boto jasozituen Sakanan (5. zerrenda 437 botorekin, %6,67; Altsasun 4. indarra, 253 botorekin, %10,45) eta Altsasun jendea kide du. Haiek gonbidatuta, Iruñerriko eta Mendabiako kideak izan ziren azalpenak ematen. Ondoren, bildutakoan artean solasaldia izan zen.

Iruñerriko zirkulu kide Juan eratzen ari den indar horren inguruko argibideak eman zizkigun bilkuraren aurretik. Europako parlamentuko emaitzak ez zituztela espero aitortu zigun Juanek. "Orain uholde bat sortu da eta jende asko hurbiltzen ari da zirkuluetara. Jakin-mina dauka". Herritarren aldetik gauzak aldatzeko gogo bat badagoela nabari dute: "Podemos-Ahal Dugun bide bat, esperantza bat opatu dute. Esperantza benetako aldaketara iritsiko den denen artean ikusi beharko da". Maiatzak 15eko mugimenduaren gauzatze politikoa egitea da euren helburua. "Gehiengo oso bat bildu nahidugu, benetako eta errotiko aldaketa politikoa bat sustatzeko; 78ko erregimenari bukaera ematen diena eta aro berri bati hasiera ematen diena".

## ANTOLAKUNTZAZ

Juanek azaldu digunez, antolaketa eredu aztertzen ari dira. Udazkenean Si se puede asanblada hiritarrean erabakiko dute. Hiru dokumenturen gainean ariko dira: barne antolaketa, zerrenda-gaien jarrera etikoa eta ildo politikoa orokorra eta programak. "Momentuz talde sustatzailea eta zirkuluak eratzeko deialdia dago. Herri, eskualde, erkidego mailako antolaketa zehaztuko dago". Nafarroan 1500 kide ditu Podemos-Ahal duguk. Denak ez dira eratuak dauden 16 zirkuluetako kide. Batzuk etxetik, Internet bidezko lotura dute. Iruñean lantaldeak programarako ildoak zehazten ari dira.

## Sare sozialetan

Twitter: @PodemosAltsasu  
Facebook: Podemos Altsasu Ahal dugu

&gt;&gt;



EHEko kideak bileran. UTZITAKOIA

## EHEk ikasturteko lan ildoak zehaztu ditu

Larunbat goizean Lakuntzan egindako nazio batzarrean Euskal Herrian Euskaraz (EHE) ikasturterako plangintza eztabaidatu eta onartu zuen. Erabile euskaltzaleko hainbat herri eta auzoetako kideak, sakandarrak, barne izan ziren bileran. Euskara erdigunean kokatzeko apustua egin du erabile euskaltzaleak.

EHEk helburu orokorren artean kokatu ditu: euskaraz bizitzeko hautua indartzea, norbanakoen kontzientzia hartzea eta aktibazioan eragitea, euskarari maila eta eremu ezberdinetan lehentasuna emateko eragitea, iruzurrei eta erasoei aurre egitea, hizkuntza politika burujabearen aldeko mezua zabaltzea eta hizkuntza eskubideen defentsan irmo mantentzea.

## SAKANA

## PSNko primariak martxan

Sozialista nafarrek euren burua aukeratzeko prozesua martxan jarri dute. Amanda Acedoren eta Maria Chiviteren artean aukeratu beharko dute militanteek eta PSNren zaleak. Azken horiek www.psn-psoe.org web orriaren bidez edo Altsasuko egoitzan izena emateko aukera dute, hilaren 13ra arte. Horretarako datuak eman, Nafarroan aldaketa progresistaren aldeko manifestua sinatu eta bi euro ordaindu beharko dira. Hautagaiek larunbatetik 18ra arte informazio kanpaina eginen dute. Bozketak, berriz, 19an izanen da. Hautalesketuetako bat Altsasun egonen da.

&gt;&gt;

## Gudari eguneko mobilizazioa debekatu zuten

Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkari Carmen Albak debekatu egin zuen larunbat arratsaldean Altsasun deitua zegoen manifestazioa. Gudari eguna zela eta, Memoriaz, askatasun helburu leloa zuen deialdia egin zuen Sakanako ezker abertzaleak. Debeku hori dela eta, makina bat sakandar Iruñeko ekitaldietan parte hartu zuten.





GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

**948 564 355**  
**679 160 116**  
(24 ORDUZ)

**TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA**

[www.tanatoriosirache.com](http://www.tanatoriosirache.com)



**Oroigarriak egiten ditugu**


Nahi duzun argazki eta testuarekin

**GUAIXE KOMUNIKAZIOA**  
948 564 275  
Foru plaza 23-1  
Altsasu  
[argi@guaixe.net](mailto:argi@guaixe.net)

**Ana Mari Andonegi Aldasoro**

Josefina Arregui klinikako eta osasun etxeko langileei, eskertu nahi dizkiegu familiari emandako laguntza eta arreta.

**Familia**




**Ana Mari Andonegi Aldasoro**

Ez agurrik, ez adiorik, gero arte baizik.

Beti gure bihotzean.

**Zure familia**

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



**Bidali mezua [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)-era edo hots egin 948 564 275 telefonora**



**Jose Peral Bengoa**  
(Patxi Peral juntakidearen aita)

Sargori zen, orain goxo da, lainoa zen, orain argi.



**Iñigo Aritza ikastolako ikasleak, langileak eta gurasoak**

# guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

**NORBANAKOEN IRAGARKIAK**

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en **doan**  
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

**HARREMANETARAKO**

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)

## Higiezinak

### ETXEBIZITZAK

SALGAI

Lizarragabengoa etxea salgai. Berritua, sukaldia jantzita. Prezio negoziogarria. Telef: 667 85 33 79.

**Etxarri Aranazen mustutzeko dagoen pisua salgai.** 70 m<sup>2</sup>, 2 logela, 2 bainugela, sukaldia, egongela, arropa lehortzeko gela. Ilogailua, berogailua (gasa), 10 m<sup>2</sup>ko trastelekua, garaje-plaza. Ikuspegi bikainak. Tel 687 73 65 55.

## LOKALAK

ERRENTAN EMAN

**Jatetxe-taberna alokatzen da Arbizun.** 948 46 04 04.

## OPARITAKOAK

**Ortxi oparitzen dut ezin dudalako zaindu.** Nahiko lasaia. Bakarrik egotera ohituta. Basoa gustuko du. Ongi konpontzen da jendearekin eta beste txakurrekin. Haurrekin patzientzia du. Tel 680 10 65 89.



## Galdutakoak / opatutakoak

### OPATUTAKOAK

**Eguzkitako betaurrekoak.** Urdiaingo San Pedro inguruan. Galdu duenak, hots egin dezala

646 65 41 26 telefonora.

## IKASTAROAK

**Komunikazioa, autoestimua eta emozioen kudeaketa tailerra.** Helburua: Komunikatzeko gaitasunen garapena lantzea. Holga Martinez de Lagran etxarriarak gidatuko du. (Psikologian Dokorea). Non: Etxarri Aranazko Kultur Etxean Informazioa eta kontaktua: 639408118 Noiz: Urrian, egun eta ordutegiak zehazteke.

**Zuzenean saltzeko estrategiak.** Arbizun, azaroak 7an eta 14an. Ordutegia: 9:00 – 18:00. Argibide gehiago 948 56 70 10 telefonon eta [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es) posta elektronikoa.

**AES.** Berria Enpresarako ingelera, irailean; "Ingelera elkarrizketa praktikak", Arbizun, 40 ordu, azaroa-abendua; ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak, Arbizun, abenduan "Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua", Altsasu, 60 ordu, urria-abendua; "Adimen emozionala", Arbizun, 30 ordu, iraila-azaroa; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta [formacion@aesakana.com](mailto:formacion@aesakana.com)

**IFESek hainbat ikastaro antolatatu ditu Iruñean.** Informazio gehiago [www.ifes.es](http://www.ifes.es), 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

**Forem Navarra – CCOO ikastaroak.** Informazio gehiago: [www.foremnavarra.org](http://www.foremnavarra.org)

**AIN-consulting ikastaroak.** Informazio gehia-

go: 948 42 11 23 eta [formacion.ain.es/](http://formacion.ain.es/)

## Oharrak

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota marbxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

**Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko.** Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpentak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

**Mintzakide proiektua.** Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzan: <http://goteo.org/project/zu-gabe-egin>

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpentak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

**Haurren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu.** Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

**Euskonek ekonomikoki laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: [www.euskonek.com/laguntza](http://www.euskonek.com/laguntza)

[euskonek@euskonek.com](mailto:euskonek@euskonek.com), 943- 32 22 94.

**3MBk kontu korrontea zabaldu du.** Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpentak 3008 0093 66 2460985811

**Auzolana Josefina Arregui klinikari.** Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezate.

**Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.** Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: [amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com](mailto:amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com) eta [amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com)

**Eskuratu zure Beleixeguaixe txartela.** 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net).

**Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko.** Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publiko-en inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburu argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

**Lugorri produktu ekologikoen elkarte eta denda.** Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta

## JAIOTZAK

• **Ixone Segura Santiago**, irailaren 26an Arbizun.

## HERIOTZAK

• **Josefa Lizarraga Mendinueta**, irailaren 22an Arbizun.  
• **Anda Maria Andonegi Aldasoro**, irailaren 27an Altsasun.  
• **Rufina Roitegi Lacalle**, irailaren 29an Olaztin.  
• **Jose Peral Bengoa**, irailaren 29an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorri partaide egiteko 50 euroko kuota bakarria eskatzen da. Lugorri Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezta, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ospina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

ATLETISMOA

**SAKANDARRAK PLAZAOLAN:** Plazaolako Maratoi erdia jokatu zen igandean Leitza eta Lekunberri artean. Alfonso Serrano (1:17:00)

izan zen garailea. Juan Pedro Ariz 49.a sailkatu zen (1:40:46), Eduardo Zuñiga 61.a (1:47:27) eta Ixa San Martín 76.a (2:01:45).

Automobilismoa

## 3,2,1, 0... has dadila ikuskizuna!

### 3,72 kilometroko igoera



Ibilbideari dagokionez, Olazti eta Zudaire arteko NA-718 errepidean jokatu da proba, 38.050 km puntutik 32.220 km puntura. Hau da, 5,72 km izanen ditu, eta Olaztitik Urbasako portua igo arte jokatu da. Ibilbideak bi zati dauzka. Lehenengo zatia irteeratik hasi eta "Salto de aguas" izenez ezagutzen den tokira artekoa da. Zati oso azkarra da, autoak ziztu bizian doaz eta akaso, ibilbideko bihurtunetik okerrera lehen zati horretan dago. Abiadura horren azkarra da ezen bihurtune horren peralteak kanpora botatzen baitu autoa. Kontu handia izan behar da hor. Bigarren zatia, aldiz, teknikoagoa da. Bihurtunez betetako zatia da, gehienak ferra bihurtuneak, edo 180 gradukoak. Beraz, autoek abiadura moteldu beharko dute. Ikusle gehienak bertan pilatzen dira. Igoera auto indartsuendako egokia da.

**34. Urbasako Igoera jokatu da bihar, larunbatean, 14:00etatik aurrera. Errepidea 9:00etan itxiko da. 59 pilotu lehiatuko dira**

Sakana Motorsport taldeak antolatuta, 34. Urbasako Igoera jokatu da bihar, larunbatean, 14:00etatik aurrera. Motor zaleendako xarma berezia du Urbasako Igoerak. Arrakasta handiko ekitaldia da, ikuskizun hutsa. Eguraldi ona iragarri dutenez, antolatzaileek Olazti-Urba igoerako txokoak zaleez betetzea espero dute.

#### Antolaketa lan handia

Beti da zaila tamaina horretako ekitaldi bat antolatzea: baimenak lortu, segurtasuna lotu, dirua bildu... Aurrekontu handia behar da proba aurrera ateratzeko, aseguruak eta beste estaltzeko. Zailtasunei aurre eginez, Sakana Motorsport taldekoak munduko ilusioguztiarekin ari dira lanean.

Horretarako Olaztiko Udaren, Maisuenea gaztetxearen, Bierrik fundazioaren eta hamaika komertzio eta babesleren laguntza izan dute, eta Motorsport taldekoak eskertuta daude.

#### Errepidea 9:00etan itxiko da

Errepidea goizeko 9:00etan itxiko da. Hortaz, Urbasara igo nahi dutenek ordu hori baino lehenago egin beharko dute. Ibilbidean barna antolakuntzako kideak izanen dira, beharrezko argibide guztiak emateko.

#### 59 pilotu

34. Urbasa Igoera Nafarroako Mendi Txapelketarako puntuagarria da. 10 kategoria ezberdineko ibilgailuek parte hartzeko aukera dute. Autoak Clinker aurreko futbitoko pistan egongo dira, parke itxian, eta asistentzia guinea Erburua kiroldegiko aparkalekuan

egongo da.

Pilotuei Urbasako igoera asko gustatzen zaie, oso erakargarria da. Urte pila batean jokatu da eta izen handikoa da. Aurten 59 pilotu lehiatuko dira, asko aski ezaunak: Europako txapelduna izandako Pantxo Egozkue (Silver Car S2), Arkaitz Ordoki (Silver Car S2), Joseba Iraola (Silver Car S2)... Aurreko urtean Urbasako igoera irabazi zuen Aitor Arakistain ez da aurten lehiatuko.

#### Pilotu sakandarrak

Hainbat pilotu sakandar lehiatuko dira. Gustura lehiatuko dira etxean. Tartean daude Garikoitz Flores (BRC), Iban Lopez de Goikoetxea (Renault 5 GT Turbo), Garikoitz Goñi (Renault 11 Turbo), Arkaitz Irigoien (Renault 11 Turbo), Andoni eta Asier Lopez de Sabando (BMW 325), Oier Larrañaga (Citroen AX)...

#### Zozketa:

##### Iru-Biden bazkaria

Sarrerarekin batera jasotako esku-orrian zenbaki bat agertuko da. Bi lagunendako bazkaria zozketatuko da Altsasuko Iru-Bide jatetxean. Saritutakoaren berri Facebooken (Guaixe) eta Twitterren (@guaixe) emanen dugu.

#### Egitaraua

**9:00etan:** Urbasako errepidea trafikoarendako itxiko da.  
**9:00etatik aurrera:** Ibilgailuen egiaztapen tekniko eta administratibok Clinker parean.  
**14:00etan:** Entrenamendu ofizialak.  
**Segidan:** Lasterketako lehendabiziko eta bigarren mangak.  
**Lasterketaren ondoren:** Sailkapenak publikatu eta sari ematea, Clinker jatetxean.

#### Boluntarioak behar dira

Urbasako igoera antolatzeko boluntarioen laguntza behar da, besteak beste, sarrerak kobratzeko. Boluntarioek dei dezatela 618 88 26 75 telefonora.

#### Segurtasuna eta garbitasuna, funtsezkoak

Pilotuen eta ikusleen segurtasuna bermatzea da antolakuntzaren helburu nagusia eta horregatik, soilik zehaztutako guneetan kokatzeko eskaria egingen zaie Urbasara hurbilduko diren zaleei; debekatutako eremuetan ezingo da egon. Horretaz aparte, Urbasa-Andia natur parkea dela kontuan hartuta eta inguruarekiko errespetua adieraziz, antolakuntzak norberak bere zaborra jasotzea eskatzen du. Hortik aurrera, autoen ikuskizunarekin gozatzeko eta, eguraldia lagun, egun polit bat pasatzeko deia egin diete zale-tu guztiak.

Motoziklismoa



Alex Tech3 taldeko lankideekin.

#### Mariñelarena Alcañizen

Aragoiko Saria jokatzeko zela probestuz, Tech 3 bere taldea bisitatu zuen

Asteburu honetan Aragoiko Sari Nagusia jokatu da, Munduko Motoziklismo Txapelketarako baliagarria. Hori dela eta, Alex Mariñelarenak bere taldea bisitatu zuen Alcañizeko zirkuituan, lasterketa jokatu baino lehen. Jakina denez, duela 7 hilabete, otsailaren 27an, eroriko oso larria izan zuen pilotu irurtzundarrak Paul Ricard zirkuituan, hain zuzen ere mundialerako entrenatzen ari zela. Koman egon zen aste betez eta oraindik bere osatze prozesuarekin jarraitzen du. Besteak beste, Tech 3 taldeko MotoGP mailako Pol Espargaró eta Bradley Smith pilotuekin egon zen eta Moto2 taldeko Marcel Schrötter bere taldekidearekin eta bere ordezkopilotuarekin, Ricky Cardúsek. Jakina, taldeko zuzendari Hervé Poncharlek ere biltzeko aukera izan zuen. "Eurekin egoteko gogo handia nuen, eurek ere ikusteko nola nagoen. Aurrera egiteko balio dizu horrek eta bisitatik oso ilusionatuta aterata naiz" azaldu du pilotuak. Irurtzundarrak nabarmendu zenez, bere erreperazio prozesuak "ongi" jarraitzen du.

Supermotard

## Fernando Urra txapeldun Los Arcosen

Zona Norte Txapelketarako baliagarria zen supermotard lasterketa irabazi zuen

Irailean Zona Norte Txapelketarako baliagarria zen supermotard lasterketa jokatu zen Nafarroako Zirkuituan, Los Arcosen. Probak bi lasterketa zituen eta oso lehiatuak izan ziren biak. Izan ere, esperientzia handiko pilotuak aritu ziren, tartean Espainiako Abiadura Txapelketako pilotu ohi Jon Purroy

Nahiz eta Fernando Urrarendako modalitate honetako bere lehen lasterketa izan –aurretik enduro mailan aritu zen eta Nafarroako Junior mailako txapelduna izan zen–, olaztiarrak gainontzeko pilotuen presioari aurre egiten jakin zuen eta supermotardeko proba irabaztea lortu zuen.

Bestalde, aipatu proban beste olaztiar batek debutatu zuen, Migel Angel Perez 9.a izan zen.



Fernando Urra.

**nc**  
**nerea cenoz**  
 nutrición

Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatuak (Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacnoz.com  
 nereacnoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

Estafeta 16, atzea · Lakuntza (Bostekoa masaje zentroan)

**Pisua kontrolatzeko dietak:**

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

**Patologia ezberdinetarako dietak**

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

## Pala



## I. Etxarriko Pala Txapelketa Mistoko finalak jokoan

Igandean, 18:00etan, Euskalerriri pilotalekuan

Emakumeen Pala Eskolak egiten duen lana aitortzeko bideari jarraituz, Etxarri Aranazko Udalak Etxarriko I. Pala Txapelketa Mistoa antolatu du. Gizonezko batek eta emakumezko batek osatutako taldeek eman dute izena bertan. Hilabete honetan gauzatu da txapelketa, eta aipatu txapelketaren finalak ferietan jokatu dira, igandean, 18:00etan, Euskalerriri pilotalekuan.

### PUNTAKEMAKUME PALISTAK

Finalen ondoren elitezko emakumeen pala erakustaldia izanen da. Susanaketa Maite Ruizek ordezkatuko dute Nafarroa, Maider eta Nagore gipuzkoarren kontra aritzeko. Puntako palistak dira laurak, hauetako batzuk berriki Mexikon jokatuak Pilotak Mundialean lehiatu direnak.

### EMAKUMEA ETA EUSKAL PILOTA ERAKUSKETA

Gaur itxiko ditu atea Emakumea eta Euskal Pilota erakusketak. Etxarri Aranazko Kultur Etxean dago ikusgai, eta bertan XX. mendean mundu osoko frontoi garrantzitsuenetan emakumeek izan duten presentzia erakusten da.

### Txirrindularitza



## Munduko txapeldunaren lotura sakandarra

Kwiatkowski 2010ean Rural Kutxarekin debutatu zuen profesionaletan eta Altsasun bizi izan zen urte batez

Michal Kwiatkowski poloniarra dugu munduko txirrindularitza txapeldun berria, hurrengo urtean ortzadarraren maillota jantziko duena. 24 urteko gazteak Simon Gerrans australiarri eta Alejandro Valverde espainiarri segundo bat atera zien. Imanol Erbiti 65.a izan zen, 4:08ra. Kwiatkowski Sakanarekin harreman estua dauka. Poloniarrek 2010ean Sakanan sortutako Rural Kutxa talde kontinentalarekin egin zuen salto profesionaletar. Rural Kutxa ibili zen urte horretan, Altsasuko bizilaguna izan zen. "Nafarroan bizitako urteak zoragarriak izan ziren. Radoslaw anaiarekin iritsi nintzen, Altsasun bizi ginen eta jende askoren babesa izan genuen" adierazi du Munduko txapeldunak.

## Mendia

# Mendi Kluben Eguna igandean Altsasun

Igandean, 9:00etan, abiatuko dira mendi ibilbideak eta gero bazkaria izanen da Zelandiko frontoian

Aurreko urtean bezala, 12. Mendi Kluben eguna hartuko du Altsasun igandean, "Goazen denok mendira" lelopean. Helburua Nafarroako mendizaleak bildu eta ibilbide eder baten ondoren egun pasa polita egitea da. Dantzaleku Sakanak klubeko mendi sekzioa antolatu du egunaren antolaketaz, Altsasuko Mendigoizaleak taldearen laguntzarekin.

### Bi ibilaldi: 21 km eta 14,5 km

Bi ibilbideak goizeko 9:00etan abiatuko dira Altsasuko Foru Plazatik. Dantzalekutik San Pedrorra iritsiko dira mendizale guztiak, Arania igotzeko. Hortik aurrera bi aukera izango dituzte mendizaleek, ibilbide luzeagoa egitea edo laburragoa.

Martxa luzea (21 km) Aitzarteraino iritsiko da. Ondoren Saltsas mendiraino joko dute, segidan Intsusburura heltzeko. Urdaingo igerilekuetaraino jaitsiko dira gero. Puntu honetan ibilbidemotzarekin bat egingo du ibilbide luzeak.

## Lopezi, Iglesiasi, Bengoetxeari eta Salgadori omenaldia



Dantzaleku Sakanak 4 altsasuarrei errekonozimendua egiten die igandean. Omenduak Luis Mari Lopez, Pello Iglesias eta Andres Bengoetxea mendizaleak dira, Altsasuko Mendigoizaleak taldeko sortzaileetakoak, eta Jose Antonio Salgado mendizalea eta mendi korrikalaria. "Mendizalea izateaz aparte, Sakanan mendi lasterketetan hasi zen aitzindarietako bat da. Oraindik mendi lasterketetan parte hartzen du, bera da Zegama-Aizkorri parte hartzeko gonbidapena jasotzen duenetako bat" azaldu du Bergarak.

Urdaingo igerilekuetatik Sarabe bailara zeharkatuko dute mendizaleek. Ondoren, Txonbonaizazpira helduko dira, Soroanburutik Altsasuko helmugaraino iristeko.

Ibilbide laburra 14,5 km ingurukoa da. Araniatik Aitzartera egin beharrean, Urdaingo igerilekuetaraino iritsiko dira mendizaleak, aipatu berri dugun ibilbideari eki-

teko. "Ibilbidemotzarekin etxekotxienak animatu nahi ditugu, mendizaleak sustatu. Ibilbide paregabea da hau, Sarabeko bailara ikusgarritik barna" adierazi digu Dantzaleku Sakanako Peio Bergarak. Halaber, Bergarak azpimarratu nahi izan du ibilbide hauek "oinez egiteko direla, mendiaz disfrutatzeko, ez korrika egiteko".

## Ekaitik Ollora, Txurregitik barna

Igandean 7. Arakilgo Mendi Ibilaldia antolatu dute, 10:00etan Arakilgo Udalak 7. Arakilgo Mendi Ibilaldia antolatu du igandearako. Izena ematen duten mendizaleak goizeko 10:00etan aterako dira Ekaitik, eta Satrustegiko mendizerratik gora joko dute, Txurregitik heltzeko. Handik Ollora jaitsiko dira, bertako "Gure Sustriak" baserri eskolan bisita gidatua egin eta bertan bazkaltzeko. Egun pasa ederra. Izena ematea Arakilgo Udalean egin behar da (948 500 101 edo 634 584 226) eta pertsona bakoitzeko 15 euro ordaindu.

### Autogestionatutako bazkaria

Bukaeran, txistor pintxo eta salda beroa hartzeko aukera izango dute mendizaleek. Eta gero, mendizaleak eta nahi duten guztiak Zelandi frontoian bilduko dira bazkaltzera. Talde bakoitzak bere bazkaria emango du. Aldiz, antolakuntzak edaria, ogia, kafeak eta likoreak eskainiko ditu, eta baita bazkaria girotzeko musika ere. Aurreko urtean 400 mendizale bildu ziren eta, eguraldia lagun aurreko urtean festarekin bat egitera animatu du Bergarak.

## Aizkora

# Bederatzigarren txapelaren bila

Igandean, 13:00etan, Nafarroako I. Mailako Txapelketako finala jokatu du Nazabalek jaioterrian, Etxarri Aranatzen

Etxarri Aranazko feriak puntako aizkolarien bilgune izango dira. Izan ere, igandean Nafarroako I. Mailako Txapelketako finala jokatu da Euskalerriri pilotalekuan, 13:00etan. Bertan, Uharte Iruñeko kanporaketan finalerako txartela lortu zuten 5 aizkolaria lehiatuko dira: Floren Nazabal etxarriarra, Jon Rekondo leizarra, Ruben Saralegi leizarra, Ander Erasun aurritziturrendarra eta Oihan Larretxea

beratarra. Ondokolana egin behar dute: lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko erdibitu.

### Herrian faborito

Egungo txapeldun Floren Nazabal da txapela jantzeko faborito nagusia. Nahiz eta Euskal Herriko kanporaketan arazo batzuekin aritu, Nafarroako kanporaketan maila bikaina eman zuen eta etxarriarra da txapela jantzeko faborito nagusia. Egundik txapel dituen Nazabalek, eta jaioterrian bederatzigarrena jantzi nahiko luke. Horretarako, baina, lan handia du aurretik.



Nazabalek final handia du jokoan.

## Resano eta Beltza atarian gelditu dira

Ez dute lortu Euskal Herriko 3. mailako finalera sailkatzea

Igandean Euskal Herriko 3. mailako Aizkora Txapelketako bigarren kanporaketa jokatu zen Aizarnazabal. 8 aizkolaria lehiatu ziren, hiru multzotan banatuta. Bakoitzak lau kana-erdiko erdibitu behar zituen. Tartean zeuden Iban Resano dorrobarra eta Goizeder Beltza etxarriarra. Lehen hirurek finalerako txartela zuten sari.

Iker Vicente, Vicente II.a, izan zen azkarrena (8:21), Mindegia (9:47) eta Irazabal (9:52) aurretik. Iban Resano izan zen laugarrena (10:27) eta Goizeder Beltza bosgarrena (10:31). Tamalez, gutxiatik baina finalerako kanporatu dira bisakandarrak.

**PPSOE,**  
**Euskal**  
**Telebista**  
**digitala**  
**Nafarroan**  
**orain!**

Berria erosi taldea

**JUBILATUEN**  
**ELKARTEA**  
(gerentzia aldaketa)

\* **Asteburuko menua** 23 €  
(erreserbarekin)  
• Hasierakoak konpartitzeko  
• Bigarrenak aukeran arrainen eta haragiaren artean  
• Etxeko postrea  
• Ardoa, ogia eta kafea

\* **Karta**  
\* **Plater konbinatuak**  
\* **Bokatak**  
\* **Menuak prezio ezberdinekin** (erreserbarekin)  
**647 436 795 · Arbizu**

**HIJOS DE GOIKOETXEA**  
**EDARI BANATZAILEA**

Zatoz gure ardotegia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu  
948 467 317 · 696 979 279 · hijosdegoikoetxea@yahoo.es



## Mendi lasterketak

# Etxarriko bargan gorabehera

39. Mendira Joan-Etorria jokatu da igandean, 11:00etan, Etxarri Aranatzan

Igandean, lastailaren 5ean, Mendira Joan-Etorriaren 39. edizioa jokatu da Etxarri Aranatzan, goizeko 11:00etan, Etxarriko ferietako ospakizunen barruan. Etxarriko Udaberri elkarteak, Etxarri Aranatzko Udalak eta Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak antolatute mendi lasterketa, hainbat laguntzaileekin batera. Probak 10 kilometroko luzera du eta 572 metroko desnibel pilatua. Gehiengoaldea mendi gainean, Urbasa-Andiako bargan hartuko du (1.065m). Etxarriko Nafarroako Mendi Lasterketen Koparako azken proba puntuagarria da. Aipatzekoa da 1975. urtean sortu zela proba, lagun arteko apustu bat zela medio.

Aurreko urtean 88 korrikalari lehiatu ziren Etxarritik Urbasako Bargara igo eta jaisteko lasterketan, horietatik 39 sakandarrak. Irabazleak Fernando Etxegarai beratarra (46:43) eta Raffaella Ciavola gasteiztarra (62:13) izan ziren. Etxegarai ez zuen lortu Juan Mari Garinek 2001ean ezarritako errekorra hobetzea (42:50). Seigarrena eta lehen sakandarra Ander Unzurrunzaga etxarriarra izan zen (49:24), eta emakumezkoetan lehen sakandarra proban bigarren emakumea izan zen Jone Pelaez altsuarra (66:34).

## Izena ematea zabalik

Izen ematea [www.mendizmendi.com](http://www.mendizmendi.com) webgunean egin behar da, edo lasterketaren egunean bertan, 10 euro ordainduta. Korrikalari bakoitzak



Erkuden San Martin 2013an helmugara iristen.

oroigarri bat jasoko du bukaeran, eta probaren ondoren auzatea iza-

nen da. Antolakuntzak proban parte hartzeraz eta proba zuzene-

an jarraituz animatu dituzak sakandarrak.

## Sariak

**Lehenengoak:** 90€, txapela eta sari berezia.

**Bigarrenak:** 60€ eta sari berezia.

**Hirugarrenak:** 30€ eta sari berezia.

**Lehen etxarriarrek:** 50€ eta XALOK saria.

**Bigarren etxarriarrek:** Sari berezia.

**Hirugarren etxarriarrek:** Sari berezia.

**Lehen beteteranoak:** Sari berezia.

**\*Probako errekorra gaituz gero (Juan Mari Garinek 2001ean: 42:50):** 200€-kosaria.

[mendirajoanetorria.16mb.com](http://mendirajoanetorria.16mb.com)

Probaren inguruko informazioa.



# Egea eta Sevillano azkarrenak Olaztin

Sakandarrak Olaztagutia-Urbsa mendi lasterketan (23,2 km):

## Gizonak

1.	Aritz Egea	1:48:46
7.	Jose Luis Beraza	1:59:31
15.	Aritz Munarriz	2:02:11
24.	Beñat Katarain	2:06:02
28.	Mikel Berastegi	2:09:00
30.	Jose Javier Maiza	2:09:32
41.	Iñaki Martiarena	2:11:37
45.	Mikel Sasiain	2:13:07
46.	Alatz Agirre	2:13:08
48.	Patxi Cano	2:13:12
50.	Aitor Hernaiz	2:13:53
56.	Iker Flores	2:15:08
62.	Iraitz Senar	2:17:37
64.	Aritz Pellejero	2:17:41
74.	Fran Araña	2:19:24
81.	Gorka Acebes	2:21:59
92.	Santi Galarza	2:23:41
103.	Mikel Iriarte	2:25:53
123.	Raul Audikana	2:33:59
125.	Mikel Rubio	2:34:42
126.	Egoitz Aldaz	2:34:43
140.	Fernando Mazkarian	2:38:13
153.	Jon Zufiaurre	2:41:23
174.	David Oroz	2:46:40
178.	Iñaki Lacalle	2:47:06
181.	Gaika Zufiaurre	2:47:27
182.	Sergio Goñi	2:47:30
184.	Fermin Zornoza	2:47:58
187.	Mikel Munarriz	2:49:10
195.	Luis Areta	2:50:40
196.	Jose Ignaio Otsoa	2:51:15
198.	F. Javier Rodriguez	2:52:19
200.	Julen Arratibel	2:52:46
201.	Aitor Salinas	2:52:59
207.	Fermin Astiz	2:54:31
209.	Iñaki Ganuza	2:55:41
211.	Javier Camuel	2:56:13
224.	Sergio Rodriguez	3:01:05
226.	Angel Gurmindio	3:05:57
227.	David Irigoien	3:07:00
234.	Angel Gurmindio	3:17:45
236.	Iñaki Gurmindio	3:21:09
237.	Javier Bados	3:24:48

## Emakumezkoak

1.	Sandra Sevillano	2:17:22
7.	Izaskun Beunza	2:35:40

## Kadeteak

1.	Josu Galvez	1:36:56
4.	Eki Imaz	1:55:33
5.	Kepa Paniagua	2:02:55

## Juniorrak

1.	Iñaki Ibarburen	1:31:04
4.	Julen Paniagua	1:34:55

\*Oharra: Saillkapenean korrikalarien jaioterriko daturik jasotzen ez denez, gerta daiteke korrikalari sakandar guztiak ez agertzea.

283 korrikalari hartu zuten parte 8. Olaztagutia-Urbsa mendi lasterketan. Jose Luis Beraza uhartearra izan zen lehen sakandarra eta probako lehen beteteranoa, helmugara 7.a heldu eta gero

312 korrikalari zeuden izena emanda 8. Olaztagutia-Urbsa mendi lasterketarako, baina azkenean 283 korrikalari hartu zuten irteera 23,2 km eta 1.367 metroko desnibel positiboa zuen proban. Sute-gik antolatutako proba Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako eta Euskal Koparako baliagarria zen.

Lasterketa Urbasako paraje zoragarrietan gauzatu zen. Besteak beste, Tontorraundi (1.367), Bargagain (1:153m) eta Gainsol (1.068m) gainditu behar izan zituzten, atzera ere Olaztin helmugaraino heltzeko. Aritz Egea gipuzkoarra izan zen jaun eta jabe (1:48:46). 3 minutu pasako alde aterazioan Walter Becerrari (1:51:50), Abderrahim El Quayedek osatu zuen podiuma (1:15:50). Emakumezkoetan lehia estua izan zuten Sandra Sevillanok eta aurreko urtean Olaztagutiko proba irabazi zuen Alizia Olazabalek. Azkenean, Olaztin estreinatu zen Sevillano izan zen azkarrena (2:17:22), Olazabali 2 minutu pasa aterata (2:19:20). Izaskun Zubizarreta hirugarren postuan iritsi zen (2:23:50).

## Txapeldunak, pozik

Aritz Egea eta Sandra Sevillano puntan daude. Garagarriean jokatuak Lakuntza-Aralar mendi lasterketan ere garaileak izan ziren biak. Olaztin proba Euskal Koparako baliagarria zen, eta Zeaurriko azken probaren faltan, dagoneko ziurtatu daiteke Aritz Egeak eta Sandra Sevillanok irabazi dutela kopa. Egearendako aurtengoa



Eguzkia lagun izan zuten korrikalariak Urbasako parajeetan. Eskuinean, lehen sakandarrak, Beraza eta Beunza.

Olaztin aritzen zen hirugarren aldia zen. Lehenean 3.a izan zen, aurreko urtean 2.a eta aurten irabazlea. Agorriean Suitzako Zermatten jokatuak Munduko Kopan hirugarrena izan zen.

## Sakandarrak mailan

Ia 50 korrikalari sakandar animatu ziren proba osatzera. Jose Luis Beraza uhartearra 7.a iritsi zen helmugara eta probako lehen beteteranoa izan zen (1:59:31). Emakumezkoetan, Izaskun Beunza olaztiarrek lan bikaina egin zuen eta 7.a sailkatu zen (2:35:40). Bera izan zen proban parte hartu zuen emakume sakandar bakarra.

## Julen Paniagua laugarrena juniorretan

Bestalde, juniorrendako eta kadeteendako 17 km-ko ibilaldia prestatu zuen antolakuntzak. Ander Ibarburen gailendu zen juniorretan (1:31:04), eta Julen Paniagua urdiaindarra 4.a sailkatu zen

(1:34:55). Kadeteetan Josu Galvez izan zen lehena (1:36:56), Eki Imaz 4.a (1:55:33) eta Kepa Paniagua 5.a (2:02:55).

Sari ematean 1.600 euro banatu ziren txapeldunen artean, trofeoak eta txapelaz aparte. Bukaeran auzate ederra izan zen guztiendako.



## Errekonozimendua Agirrerri

Mikel Agirrek urte hauetan lasterketa antolatzeko egindako lan handia eskertu nahi izan zuen Sute-gik. Oroigarri bat eman zioten.

**MARINELETHE HARATEGIA**

Etxeko tripekiak

948 46 19 80  
636 70 74 88

Larrañeta Kalea 6  
Etxarri Aranatz

# kultura >>

**COOPER HARIZTIAN:** Asteazkenean Lilian Cooper artista holandarra Altsasun izan zen. Albaola, Itsas Kultur Faktoriako arduradun laguntzaz Sakana, haritzaren

lurra ibilbidea egin zuen. Cooperrek marrazkiak adierazpide nagusi du, baina testuak eta instalazioak ere egiten ditu.

## Kantu berriak Euskalerrria Irratiarendako

**Haurrendako 20 kantu berrietako abeslarien artean Igor Ijorra eta Hesian-eko Zuriñe eta Fran daude**

**Ene kanta CD-DVDa bihar eta etzi eskuratu daiteke, Berria egunkariarekin batera, hamabost euroren truke**

Hirugarrenaldiz Ene Kantak proiektuko kideek haurrendako euskarazko abesti berri eta freskoak sortu dituzte. Batzuk herri kantua moldatu eta gaurkoak dira; guztiak itsasorearen gaineko hitzekin sortuak. Gainera, DVDan abesti bakoitze-

ko bideoklip bana dago eta han haurrek erraz imitatze moduko koreografiak daude.

Aurreneko diskoko irabaziak Sortzen-i eman zizkioten eta bigarrenekoak Nafarroako Bertsolari Elkarteari. Hirugarren diskoarekin lortzen diren etekin erdia Euskalerrria Irratia laguntzeko izanen da eta beste erdia Ene kanta-en hurrengo proiektuarendako. 20 kanta berri horietan kantuan aritu dira makina bat abeslari, baita sakandarrak ere: Igor Ijorra eta Hesian taldeko Zuriñe eta Fran.



## Udazkeneko kulturaldia Arakilen



**Bihar, 17:30ean (gaztelaniaz) eta 19:30ean (euskaraz), mustutze bikoitzarekin abiatuko da: Hiriberriko kontzeju-etxeke espazio berrian Arakilgo haizea dokumentala ikusteko aukera izanen da**

Labrit enpresako kideak 2012 eta 2013 urteen artean Arakilgo 18 etxetan izan ziren, adinduei elkarrizketak egiten. Joan den mendean ibarrean nola bizi ziren jaso zuten eta oroitzen horiek irudi bihurtu dira, *Arakilgo haizea* dokumentala osatuz. Haurtzarora, lanbideak, etxeak, eskola, festak eta besteren lekukotzak ematen dituzte ikus-entzuzko horretan arakildarrek. Haien artean da amaz oroitze euskara gorde duen urritzoldarra, idiekin lurra lantzen zituen etxeberriarra edo arta-hosto koltxoian lo egiten zuen emakume aizkorbetarraren testigantza. Aurreneko lekukotza eman duten arakildarrez aparte, Ruben Goñi alkatea eta dokumentala egin duen Labrit multimedia enpresako Gaizka Aragonen izanen dira.

Hosto bat da narrazioaren gidaria. Arakil ibaian behera doa, iraganetik orainaldira, ibarreko herritarren lekukotzei bide ematen. "Lurra, ura eta haizea bereziak dira Arakilen. Haizeak, hain zuzen ere, bertako biztanleen bizi-

penak gordetzen ditu berarekin. Sentitzeko eta bizitzeko moduak xuxurlatzen ditu belaunaldiz-belaunaldi. Haizeak, iraganetik etorkizunera, herriaren oroitzeak garraiatuko balitu bezala". Ihabarko ingurutxoan oinarritutako aire bat ere entzuten da.

### Kultura-agenda

Udazkeneko ekitaldiak antolatu ditu Arakilgo Udako Kultura Sailak. Urtero moduan ez da ez irteerarik ez bertso afaririk falta. Haietan izena eman nahi duenak, edo informazioa jaso, udaletxera hots egin 948 500 101 edo 634 584 226 telefonoetara, edo [www.arakil.net](http://www.arakil.net) web orria edo @ArakilKultura edo Facebook-eko profila bisitatu.

### Elkarrizketatuak

**Aizkorbe:** Fermin Rekalde Mariñelarena eta Lucia Martirikorena Zudaire; **Urritzola:** Ignacio Etxarren Lakuntza; **Errotz:** Francisco Gorrotxategi Urtxipia; **Izardiaga:** Gerardo Brun Lapuente eta Alberto Larunbe Astibia; **Etxeberri:** Celestino Zubillaga Etulain; **Egiarreta:** Micaela Egillor Lazkoz eta Patxi Villanueva Azanza; **Etxarren:** Martina Sario Zubiri eta Marcos

### Egitaraua

**Arakilgo haizea.** Lastailaren 4an, larunbatean, 19:30ean Hiriberriko kontzeju etxean. **Dokumentala euskaraz.**

**Ekai-Txurregi-Ollo.** Lastailaren 5ean, igandean, 10:00etan. Mendi martxa eta bazkaria.

**Una aventura en la basura.** Lastailaren 11n, larunbatean, 20:00etan Ihabarko plazan. **Ihabarko antzerki tailerra.**

**Añanako gatzaga eta Baronatarren dorrea bisita eta bazkaria.** Lastailaren 18an, larunbatean, 7:00etan Irurtzungo Matxain jatetxe aparkalekutik.

**Bertso ekitaldia eta afaria.** Lastailaren 25ean, larunbatean, 19:00etan Itxasperi ermitan. Afaria Etxarrengo elkartean.

**Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII.** Lastailaren 31n, ostiralean, 19:00etan Satrustegiko Mikorena etxean. **Juan Madariaga Orbearen liburu aurkezpena.**

**Arakilgo haurren jolas eguna.** Azaroaren 8an, larunbatean, 15:00etatik 20:00etara Etxarrengo frontoian eta elkartean.

**Arakilgo abesbatza.** Azaroaren 15ean, larunbatean, 19:00etan Errotzeko elizan.

**Egoiener, energia berriztagarrien sorkuntza eta erosle kooperatiba.** Azaroaren 21ean, ostiralean, 19:00etan Izurdiagako elkartean. **Hizlariak: Goiener eta Sustrai erakuntza fundazioko kideak.**

**Euskaraz eguna.** Azaroaren 30ean, igandean,

Zubiria Oraiaren eta Pedro Vitoria Aizpun; **Ekai:** Angel Ongai Azpiroz eta Eulalia Garro Muskiz; **Zuhatzu:** Filomena Iabon Lazkoz eta Pedro M<sup>a</sup> Yaben Irurzun; **Satrustegi:** Felix M<sup>a</sup> Amoztegi Ongai; **Hiriberrri:** German Urriza Garcia, Geronimo Ollo Armendariz, Saturnino Sarasa Aldaba eta Sebastiana Sarasa Aldaba eta **Ihabarko:** Josefina Irañeta Ripa, Joxe Arraras Jaka, Enrique Irurtzun Iriarte eta Maria Jesus Irañeta Sasturain.

## Felipe Gorriti

(Uhartea Arakil, 1839 - Tolosa, 1896)

Uhartea Arakilgo musikariaren jaiotzaren 175. urteurrena



Eskuratu Guaixerekin musikagile handiaren 5 diskoen bilduma

25€  
bazkideak  
22€



eskaerak [bierrik@guaixe.net](mailto:bierrik@guaixe.net) / 948 564 275 / 562 107

## Dekorazio-arteetan artistak

**Lastailaren 10era arte, astegunetan, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean**

ikasle mordo baten lanekin osatu du atzera ere Yolanda Arnedo erakusketa. Birziklatu eta zaharberritutako altzari eta objektuekin batera, bizikletak, loreontziak, ispiluak, koadroak... Pasta edo paperarekin taula edo oihal gainean sortutako testurak oinarri hartuta sortutako pieza ugari daude ikusgai erakusketan. Arnedoren ikasleen trebetasuna miretsita atera dira asko erakusketatik, euren etxeko txoko jakin batean ikusitako objektuen bat ongi



emanen zuela jakitun. Arnedo arte ederrak ikasketak egin eta diseinu arloan aritu zen. Dekora-

zio-arteak erakusten eskarmentu zabala du eta badira sei urte Altsasun horretan ari dena.

# Testua, Atxaga, musika, Mikel, poesia, Laboa, antzerkia

**Zazpi aldiz elur (Mikel Laboa elurretan) antzerki musikatua, bihar, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean**

**Euskararen firika kanpainaren barruan Sakanako Mankomunitateak, Altsasuko Udalak eta Berriak antolatuta dute emanaldia. Sarreretatik ateratzen den dirua Berria fundaziorako izanen da.**

Laboak, Mikel Laboa, hil zela jakin ondoren Bernardo Atxagak testu batzuk sortu zituen. Idatzietan heriotza eta elurra aipatu zituen, oparo, Atxagak. Testu horiek dira *Zazpi aldiz elur* ikuskizunaren ardatza, zeinetan musikak, poesiak eta antzerkiak bat egiten duten. Hala osatuko dute bere lagunak zendutako musikariaren erretratua.

Ttamtaka antzerki taldeak



ikuskizuna zazpi ataletan banatu du. Zazpitan elur. Bost laguneren arteko bilgune baten antzeko zerbait da taula gainean ikusiko duguna. Neguko gau elurtsua da,

zeinetan malutek "tempo" ezberdina markatzen duten. Argi bero eta txiki bat piztuko dute eta elkarrekin egoteko gogoia sentitzen dute, barre egitekoa, elkar begi-

## Fitxa

**Egilea:** Bernardo Atxaga  
**Musika:** Mikel Laboa  
**Zuzendaria:** Mireia Gabilondo  
**Musika zuzendaritza eta moldaketak:** Iñaki Salvador  
**Irudiak:** Zumeta  
**Eszenografia:** Fernando Bernués  
**Antzezleak:** Mireia Gabilondo eta Iñaki Rikarte.  
**Musikariak:** Iñaki Salvador (piano), Angel Unzu (gitarra) eta Maria Berasarte (kantua).

ratzekoa... Istorio kontaketa, akordeak ekarriko ditu eta hari lotuta kantua ezin falta, Laboarena, jakina.

Kontu-kantu-kontaktetan ariko da boskotea, Mikelen nahiez, psikiatriaz, txoriez, bizipozaz eta heriotzaz. Eta nola ez, ausardiak, berak egiten zuen bezala, esperimintatu, jolastu, kantatu, hitz egin, isildu... aske sentitu eta aske sentiarazi.

## Euskarazko emanaldiarekin hasiko da Irurtzongo antzerki zikloa

**Gaur, 21:30ean, kultur etxean Ondoko hilobiko tipoa antzezlanak ikusteko aukera izanen da**

Antzerkiaren zaleek lastaila ostiraletan, 21:30ean, hitzorduak ditu Irurtzongo kultur etxean. Herriko Kultura Kontseiluak antolatuta du antzerki-

aldia, Irurtzunen aski errotua dagoena. Gazteei eta helduei zuzendutako antzerki eskaintza da eta bakarraren batek ikusi nahi badu, sarre-rak emanaldia hasi baino ordu erdi lehenago eskura ditzake.

Zikloa abiarazteko Txalo producciones-en *Ondoko hilobiko tipoa* antzezlanak aukeratu dute. Jatorri

sozio-kultural ezberdineko bi pertsona hilerriaren kartzen dituen obrak. Aiora neska pinpirin, polit, gozo eta alarguna da bata. Pablo, baserritarra, zekena, egoskorra eta ezkongabea, bestea. Bi gazte, bi mundu. Eta irribarre txiki bat, istorio zoragarri bat piztuko duena. Begoña Bilbao zuzendutako komedian Iker

## Zikloa

**Ondoko hilobiko tipoa.** Lastailaren 3an, ostiraletan. Txalo producciones.

**El pleito de Areusa o gallina vieja hace buen caldo.** Lastailaren 10ean, ostiraletan. La nave & Limboescena.

**Aqui va pasar algo.** Lastailaren 17an, ostiraletan. Zanguango teatro.

**Action man.** Lastailaren 24an, ostiraletan. La Yllana.

Galartza eta Aitziber Garmendia aktoreek jokatu dute protagonisten paperak.

## Ziordiko liburutegiaren jardunaren argazki errepasoa

**Zerbitzua zabalik dagoen bitartean, astegunetan, 16:00etatik 20:00etara, izanen da ikusgai urte akaberara arte**

Ziordiko liburutegira joaten denak argazki erakusketa batekin egiten du topo. Amaia Iparragirre liburuzainak argitu digunez, "ni liburuzain naitzenetik, azken 15 urteetan liburutegian antolatuta diren ekitaldietan ateratako argazkiak daude ikusgai erakusketan". Ipuin kontalari, tailer, antzerki, ilustratzaile, hitzaldi, festa, haurren saioak

eta beste hartu ditu azken hiru bosturtekotan eta haiek ikusgai daude argazkietan. Ekitaldiez aparte, ziordiar gazteak nola hazi diren ikusteko aukera ere ematen dute irudiek.

Erakusketa astelenean zabaldu zen eta urtea despeditu arte ikusgai izanen da. Iparragirrek esan digunez, erakusketak bi helburu ditu. Bata aspaldiko erabilitzaileak berriro liburutegira erakartzea. Bestea, berriz, "erakus-tea liburutegia ez dela irakurtzeko edo liburuak eramateko lekua soi-



lik. Bertan beste gauza asko egin daitezke: musika entzun, ordenagailuan ibili, ipuin-kontalari bat ikusi, liburu baten azala nola egiten den ikasi, eta abar..."

Ziordiko liburutegiak 1967an zabaldu zituen ateak. Hasiera batean mojek kudeatu zuten. Esku aldaketa egon zen eta zerbitzua kudeaketa Olatz Irizarrek egiten segitu zuen, hari lekukoa Iparragirrek hartu zion arte. Liburuzainak azaldu digunez, 18.000 aleko funtsa du liburu, CD, DVD eta abarren artean.



## Nonerabili

### EKIN

#### ALTSASU

100€ko erosketengatik 10€ko deskontu bala (beherapenetan izan ezik).

### IOSUNE MARAURI

#### ALTSASU

Bakarko sesioetan %10eko deskontua

### KIKI ARGAZKI DENDA

#### ALTSASU

15x20 cm-ko 8 argazkiko erreportaje batean beste bi argazki opari.

### LURESU

#### ALTSASU

% 10eko deskontua eskaintza berezi eta enkarguetan izan ezik.

### NORTE ERLOJUDENDA

#### ALTSASU

%7ko deskontua produktu berrietan, konponketetan eta aldaketetan salbu.

### MENDIGAIN

#### URDEIAZPIKOAK

#### LAKUNTZA

50€ko erosketarekin gero etxeko produktua opari.

### URREZKOA

#### BITXIDENDA

#### IRURTZUN

Bitxietan 100 €ko erosketarekin gero etxeko produktua opari, %10eko deskontua.

### URRUTIA HARATEGIA

#### IRURTZUN

50€ko erosketarekin gero etxeko produktua opari.

### ETXARRI KOMERTZIALA

#### ETXARRI ARANATZ

% 10eko deskontua koltxoietan.

### ARKANGOA TABERNA

#### ALTSASU

Postrea edo kopa doakoa.



**G** asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 5%	euria: 15%	euria: 58%	euria: 8%	euria: 15%	euria: 13%	euria: 33%
Min: 10 Max: 22	Min: 10 Max: 20	Min: 10 Max: 13	Min: 7 Max: 20	Min: 12 Max: 23	Min: 14 Max: 23	Min: 14 Max: 23

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	25	7.5	0.3
Etxarri A.	23.9	5.5	3.1
Altsasu	23.5	7	3.1
Aralar	15.6	5.8	2.5
Urbasa	20	4	3.3

: ilargiaren aldia>>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
8	15	23	31

**EGOKI** VENTANAS PVC LEIHOAK KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

www.ventanasegoki.com egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor SISTEMA BERRIA KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

**belexe gualxe**

**Iraileko bazkide sarituak**

- Xabat Zabala Lizarraga** (Etxarri Aranatz)
- Eduardo Escudero Gorriti** (Lakuntza)
- Arantza Ibargoien Lizarazu** (Lakuntza)
- Belen Izagirre Uria** (Altsasu)

**LASTAILEKO SARIAK:**

1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza, Artaza kanpinerako deskontu balea eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.

2. Artazako kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.

3. Artazako kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.

4. Artazako kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.

**>> 11 galdera**

**Juantxu Zabala**  
Mank-eko Kirola Euskaraz kanpainari buruz

Testua: Eneida Carreño eta Maider Betelu



**1. Bigarren urtea da Mank-etik Kirola Euskaraz kanpaina martxan jarri duzuela. Zergatik?**

2011ko irailean, legegintzaldi hasieran, gai ezberdinei buruzko diagnosiak egin genituen Mankomunitatean, eta horietako bat kirol ikastaroetakoak izan ziren. Euskara batzordean konturatu ginen helduei finkatutako ikastaroetan klase gehienak gazteleiaz ematen zirela. 2.000 pertsona inguruk egiten dituzte kirol ikastaroak, eta euskaraz bizi nahi badugu, iruditzen zitzagun hutsune handia zegoela hor.

**2. Egun Sakanan dauden kirol begirale asko euskaldunak dira.**

Kosta egiten zaigu begirale euskaldunak lortzea, baina behin lortuta, ikusten genuen joera handia zegoela, askotan modu inkonzientean, klaseak gazteleiaz emateko. Administrazioetik guk euskaldunak ere babestu behar genituela ikusi genuen, hizkuntza irizpide batzuk finkatu behar zirela.

**3. Hausnarketa horren ondorioz garatu duzue kanpaina. Aurreko urtean zein pausu eman ziren?**

Lehenengo pausua izan zen zehatz-mehatz jakitea ikastaroetara joaten zen ikasleen hizkuntza-perfilazein zen. Gure sorpresa izan zen ikastaro erditan baino gehiagotan, ia %50ean, ikasle euskaldunen portzentajea erdaldunena baino altuagoa zela, baina ikastaro gehienak gaztelaniaz ematen zirela.

**4. Beste herritan egindako lana aintzat hartu duzue?**

Lasarte-Oriango garatzen duten Kirola eta Euskara proiektuak ikasi dugu. Haiekin bildu, ikasleen tipologia aztertu eta begiraleekin banaka bildu ginen, dauden hutsuneak

atzemateko. Aurreko urteko esperientzia kontuan hartuta, hobe-kuntza batzuk ezarri ditugu aurtengorako.

**5. Aurten begiraleei formazioa eskaini diezue.**

Aurreko urtean begiraleekin bildu ginenean, konturatu ginen estres linguistikoa sortzen arizela, beraiek hizkuntzaren inguruan zalantza eta beldurrik zituztela: "ulertuko dit edo ez, haserretuko da..." Begiraleek formazioa behar zutelako jabetuta, aurten sentsibilizazio saio batzuk antolatu ditugu beraiekin. Begirale guztiak elkartu eta estrategia ezberdin batzuk erakusten dizkiete, egoera ezberdinen aurrean eurek nola jokatu jakin dezaten.

**6. Kirol hizkuntzari ematen zaion trataera hobetzearekin kirol ikastaroen kalitatea ere handituko dela aipatzen duzue. Zein modutan?**

Jendea gustorago egongo da. Euskaldunak babestu behar ditugu, lasaibizitzeko, normaltasun batean.

**7. Diagnostikoak hizkuntzaren aldetik 3 ikasle tipologia zehazten ditu, eta tipologia horren arabera hizkuntza nola erabili.**

Lehen tipologia euskaldunena da, kasleen %100 euskaldunak izatea. Kasu honetan ikastaroa euskaraz emango da. Bigarren tipologia da ikasleen erdiak baino gehiagok euskara ulertzen dutenean. Kasu honetan, kirol ikastaroa nagusiki euskaraz izango da, eta norbaitek ez badu ulertzen erdaldun horri

gazteleiaz azalduko dio begiraleak. Eta hirugarren tipologia da ikasleen erdia baino gutxiagoak euskara ulertzen duenean. Ikastaroa nagusiki gaztelaniaz izango da, baina euskarari nolabaiteko sarbidea emango zaio. Kirol ikastaroetan erabiltzen den euskara maila oinarritzkoa da. Kontsigna oso zuzenak dira: "1, 2, 3 gora!". Hori edonork ulertu dezake eta erdaldunei ere euskara pittin hori ikasteko aukera emango zaie.

**8. Hau guztia betetzen den nola neurtuko du Mankomunitateak?**

Jarraipena eginez. Ikastaroak hasi eta hilabete batera bilduko gara begiraleekin. Eta ikasturte bukeran ere balorazioa egingo dugu.

**9. Administrazioaren pean dauden kirol ikastaroek ari gara. Baina badira ere talde pribatuek antolatzen dituztenak.**

Oinarritu gara zuzenean administrazioaren pean dauden ikastaroetan, baina poliki-poliki lan eremua zabalduko dugu.

**10. Kirol jarduera oso erdalduna izan da.**

Kalean jokatzeko moduan jokatu izan dugulako, modu inkonzientean gazteleiaz pasatzen da. Baina udalak hizkuntza irizpideak finkatu ditu, euskarari babesa emanaz. Eta horretan oinarrituta aurrera egiten ari gara.

**11. Pixkanaka lortzen dira gauzak.**

Pixkanaka baina beti aurrera!

**2015eko egutegi pertsonalizatuaren eskaintza**

**horma egutegiak**  
Posterra pertsonalizatua, kolorez. Kontsultatu neurriak. Faldoiak elebiduna, bi koloretan. Hilabeteak ilargiekin.

**poster egutegiak**  
Diseinu pertsonalizatua. Ekonomikoa. Kolorez. Paper lodian. Kontsultatu neurriak.

948 564 275 argi@guaixe.net